

**Aralarko
guardetxeko lanak
Nafarroako
Gobernuak aurten
eman nahi ditu** / 9

**Beriainerako pista
konpondu bitartean
Unanun egoki
aparkatzeko
eskatu dute** / 11

**Ergoienako
hirigintza plana
pandemiagatik eta
bestelakoengatik
atzeratuta dago** / 13

**Lakuntzako Udalak
Uriz kalean
urbanizatuko den
saileko bi partzela
salduko ditu** / 9

**Ezkurdiak eta
Zabaletak ongi hasi
nahi dute Binakako
Txapelketako
finalerdietako ligaxka** / 16

**Sakanako Aizkora
Eskolan izena
emateko epea ireki
du Sakanako
Mankomunitateak** / 20

**Izaskun Mujika
Mujikak
antzerkia eta
ipuin kontaketa
uztartzeko** / 21



Itxita

Pandemiaren bilakaeragatik perimetro itxiera ezarri dute Arbizun eta Etxarri Aranatzen / 6-8

Rebeka Mendoza Caro OLATZAGUTIA
Kristina Pinto Fuste olatzagutiarrak Fisika Zaragozako Unibertsitatean ikasi eta bertan Energia Berriztagarriak eta Eraginkortasun Energetiko masterra egin zuen. Egun, CENER ikerketa gunean plaka fotovoltaikoak buruzko doktoretza egiten ari da.

Non dago CENER? Bertan zer egiten da?

Sarrigurenen dago, baina beste bi instalazio gehiago daude, bat Sevillan eta bestea Agoitzen. Energia berriztagarrietan estatu lehen da. Estatuan ez ezik, Europan ere erreferentea da. Bertan, energia berriztagarriak ikertzen dira. Hainbat sailez osatuta dago: eguzki fotovoltaikoa, eguzki termikoa, energia eolikoa, eraikuntza eraginkortasuna, sare integrazioa eta biomasa. Nire sailean, fotovoltaikoan, 50 langile gara. Sarrigurenen gutxira 200-250 langile inguru izango gara.

Nola hasi zinen?

Nire aitak CENER-en berri eman zidan, nik ez bainuen ezagutzen. Masterra egiten ari nintzen bitartean bertan praktikak egitera animatu ninduen. Fisika ikasketak egin nituenez, eskatzen zituzten jakintzak eta baldintzak betetzen nituen. Beraz, baiezkoa eman zidaten eta bertan hilabete inguru egon nintzen praktiketan. Haiek bukatzerakoan nik egingandako lanarekin gustura zeudenez bertan geratu nintzen. Egia esan, oso pozik nago CENER-en lanean.

Zer ikasi zenuen aurretik?

Fisikako Gradua ikasi nuen Zaragozako Unibertsitatean, lau urtez. Gehien interesatzen zitzaidan esparrua energia berriztagarriena zenez, haien inguruko master bat egin nuen; unibertsitate berean.

Eta zure lankideek antzeko ikasketak dituzte?

Ez, denetarik dago. Nire sailean azpitalde asko daude; ni zelula taldean nago. Adibidez, nire doktoretzako tutoreak, Jaione Bengoetxeak, Fisika ikasi zuen, baina taldeko beste kide batzuek ingeniari edota kimika ikasketak dituzte.



Kristina Pinto Fuste fisikaria doktoretza industrialia egiten ari da CENER ikerketa gunean. UTZITAKOIA

Hodeien artean aukera berriak: energia berriztagarriak

KRISTINA PINTO FUSTE FISIKARIA

Olatzagutiarrak Fisika Zaragozako Unibertsitatean ikasi eta masterra egin zuen. Egun, bere doktoretza industrialia CENER ikerketa gunean egiten ari da

Ingelesa ezinbestekoa izango da zurea bezalako lan batean, ezta?

Bai horixe. Ikerketa arloan beharrezkoa da, gure eguneroko lanaren parte baita. Ikerketen argitalpen guztiak ingelesez

idatzita daude. Gainera, nire lana komunitatean partekatzeko ingelesez izan behar da. Egun, artikulua bat ingelesez idazten ari naiz. Norwegian Master Akaberako Lana egiteak asko lagun-

du zidan. Bertan, hilabete eta erdi egon nintzen eta nire maila hobetu nuen. Lana energia eraginkortasunari buruz izan zen, Institute of Energy Technology (IFE) gunean. Oslotik gertu.

Zertan datza zure ikerketa?

Esan bezala, nire ikerketa zelulako laborategian gauzatzen ari naiz. Doktoretza tesiaren izena galderra moduan azaltzen saiatuko naiz: "Zein beste erabilera eman ahalko genioke plaka fotovoltaikoen moduluetan erabiltzen den beirari?"

Moduluak material aktiboz osatuta daude, eguzki energia elektrizitate bilakatzen dutenak. Haiek babesteko beira erabiltzen da; euria, hautsa edota hotzaren aurka.

Beirak eguzki energiaren %8 inguru galtzea eragiten du, ispi lu efektua dela eta. Gure lanaren helburuetako bat galera hori deuseztatzea da, eguzki energia guztia material aktibora iritsi dadin. Beste lan ildo bat, basamortuko eguzki plaketan hondar aleen pilaketa ekiditea da. Hauts partikulen atxikidura ez gertatzeko, beiran egitura batzuk txertatzen ditugu. Egitura horien diseinua egin eta haien eraginkortasuna frogatzen ari gara.

Beraz, eguzki plakekin lan egiten duzu.

Bai, eguzki fotovoltaikoarekin. **Nolakoa da eguzki plaken funtzionamendua?**

Material aktibo batzuen bidez funtzionatzen dute. Hainbat material daude: silizioa, peroskita, silizioa amorfoa, material organikoak... Guk momentu honetan silizioarekin lan egiten dugu. Silizioak eguzki koloreak xurgatzen ditu; kolore bakoitzak energia kopuru jakin bat du eta energia hori elektrizitate bilakatzen du. Eguzki izpiak material aktibora iristen direnean material aktiboaren elektroioak energia hori xurgatzen dute, energetikoki aktibatuta egiten dira eta energia sarera salto egiten dute. Honen ondorioz korronte bat sortzen da, potentzia diferentzia eragiten. Hortik bai, energia eskuragarri izango dugu.

Sakana bezalako leku hodeitsu batean etorkizunik ba al dute?

Bai, azken finean ez dituztelako eguzki izpiak behar, argia baizik. Hobe da, noski, zerua oskarbi egotea, baina ez da ezinbestekoa.

Bi plaka mota daude, ezta?

Hori da, termikoak eta fotovoltaikoak. Termikoaren mekanis-



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



moa ulertzea askoz errazagoa da. Azken finean, edozein materia eguzkitan jartzen badugu berotu egiten da. Kasu honetan gure helburua ura berotzea da, hortaz, beltz koloreko plaka bat jartzen dugu eta honen azpian ur zirkuitu bat. Plaka berotzen doan heinean ura berotuko da, eta horrezkero etxeko berogailuak berotu daitezke. Termikoan eguzki izpiek fotovoltaikoan baino garrantzia handiagoa dute. Dena den, eguzki izpien falta konpentsatzeko plaka hibridoak asmatu dira: fotovoltaikoa eta termikoa konbinatzen dituztenak. Aukera honen bidez, elektrizitatea eta ur beroa aldi berean lor ditzakegu. **Zenbatekoa da eguzki plaken bizi-raupena?**

Fotovoltaikoez 25-30 urteko bermea dute.

Birziklatu daitezke?

Oro har plakak osatzen dituzten lehengaiak birziklagarriak dira, material bakoitza besteetatik banandu eta gero. Kanpoko geruza aluminiozkoa eta beirazkoa da, eguneroko bizitzan birziklatzen ditugun lehengaiak. Material aktiboak ere birziklatu daitezke, silizioa adibidez birziklatzeko urtu eta purifikatu daitezke. Azkenik, silizioa eta beira itsastan duen materiala EBA da, plastikoen familiakoa.

Zer egin dezakegu eguzki plakak etxean jartzeko?

Elektrikari bat kontratatu, berak instalakuntza egin dezan. Azken finean, plakek energia mota bat etengabe sortzen dute eta guk korrante altxatzen kontsumitzen dugunez inbertsore bat behar dugu. Sare mota desberdinak dira. Etxetresna elektriko guztiak altxatzen kontsumitzeko prest daude, baita gure mugikorrek ere.

Berariazko legediren bat ba al dago?

Bai. Orain dela gutxi arte, eguzkiaren zerga oso famatua izan zen, baina 2018an lege hori indargabetu zuten. Egun, legedi berri bat indarrean dago, eguzki plakak etxeetan izatea ahalbidetzen duena. 2019ko apirilean onartutako legeak hobekuntza hauek barneratzen ditu: etxeetan sortutako energia zergarik gabekoa izatea, taldeko autokontsumoa onartzea, administrazio tramiteak erraztea, potentzia muga deuseztatzea eta teiltatu edota estaldura alokairua baimentzea.

Legediak norbanakoei bi aukera ahalbidetzen dizkie. Lehenengoan, energia soberakinak energia sarera eramaten datza.



Kristina Pinto Fuste, eskubian, laborategiko kideekin. UTZITAKOIA

Elektrizitate konpainia batekin adostuz gero, hilabetearen akaberan batz bestekoa egin eta emandako energiaren arabera faktura merkatu egiten da.

Bigarrenetan, norberak bere energia sortzen du baina ez du sarera bidaltzen. Beraz, pilotzailak izanez gero egunez sortutako energia gordetzeko aukera dago. Bestela, galduko litzateke. Gazez saretik hartutako energia ohiko prezioan ordaindu beharko litzateke.

Dirulaguntzarik ba al dago?

Bai, prezioaren %40-50-a aurreztu dezakegu, erkidego eta udal

"SILIZIOAK EGUZKI KOLOREAK XURGATZEN DITU, ENERGIA HORI ELEKTRIZITATE BILAKATUZ"

"PLAKA FOTOVOLTAIKOAK EZ DITUZTE EGUZKI IZPIAK BEHAR, ARGIA BAIZIK"

"PREZIOAREN %40-50-A AURREZTU DEZAKEGU PLAKA FOTOVOLTAIKOAK JARRIZ"



Plaka fotovoltaikoak Olatzagutiako etxe batean.



Kristina, bere kideekin, bulegoko lanak egiten. UTZITAKOIA

bakoitzaren arabera. Bi dirulaguntza mota daude: instalazioen prezioari zuzenean egokitzen dena eta estatuaren zergetan eragina duena. Nafarroan PFEZ-ean %25eko zerga murrizketa dago.

Beste energia berriztagarriren batekin konbinatu daitezke?

Termikoarekin. Nire ustez, aukera hoberena plaka hibridoak jartzea da. Dena den, eraikinak ondo isolatuta egotea ezinbestekoa da. Horrezkero, energia eraginkortasuna bermatzen du. Gure energia eskaria murrizten du. Gure etxeak gaizki isolatuta baldin badaude energia gehiago behar dugu. Beraz, garrantzitsua da energia berriztagarria eta eraginkorraren alde egitea.

Zure ustez, zeintzuk dira etorkizuneko energia berriztagarriak?

Eguzki energia deszentralizatu. Zer esan nahi du horrek? Gaur egun, energia guztia leku jakin batzuetan sortzen da eta gure etxeetara iristeko prozesuan energia galtzen da. Baina, gure etxean edo inguruko sareetan energia ekoizten bagenu, ez genuke energiari galduko. Zero kilometroko energia izango genuke.

Zergatik iparraldeko herrialdeetan eguzki plaka gehiago topa ditzakegu, hemen eguzki ordu gehiago izanda?

Egia esan, beti estatuan oso atzeratuta geundela pentsatu dugu, baina Europako herrialdeen artean 10. postuan gaude. Energia termikoan postu bera dugu, baina energia kontzentratuan lehenak gara. Fotovoltaikoan Alemania lehen da, berarekiko dugun atzerapena eguzkiaren zerga jarri izanaren errua izan daiteke.

Animatuko zenuke jendea eguzki plakak jartzera?

Bai, gainera egun hainbat ikerketa egiten ari dira. Horietako bat eguzki plakak leihotetan bertan txertatzen datza. Leihoei behar dugun argia pasatzen uzten dute eta ikusten ez ditugun koloreak elektrizitatea sortzeko erabiltzen dituzte.

Azkenik, hemendik gutxira ingelesez artikulua bat argitaratu behar duzula esan duzu, ezta? Zeri buruzkoa da?

Irailean aurkezteko helburua dugu, Lisboan. Bertan eginen baita *Progress in Photovoltaics* kongresua. Nik aurkezteko eskaera egin dut baina beraiek onartu behar dute. Lehen esan bezala, beiran esfera batzuen txertaketa nolakoa den ikertzen ari naiz eta artikulua prozesu hori nolakoa den islatzen du.



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

Itaun existentzialak

"Apirilak 17, larunbata. Bost pilula" dio, kaxak. Klak! Lehenengoa atera, musukoa jaitsi eta ahora. Bigarren pilula... ahora. Hirugarrena, laugarrena, bosgarrena... hirurak batera, ahora. Jada ez du ur tragorik behar konprimatuak irensteko. Edo ahaztu zaio behar duela.

Logelara bidean *Gabon, Kontxi!* agurtu du bere kidea. Baina emakumearen begitaratean, imintziorik ez. "*Betikoa*" pentsatu du, gelako atea ireki bitartean.

Pertsiana jaitsi eta leiho ertzetik gaueko isiltasunari so, kaleko hutsuneak harritu egin du; baina, "*tira, bihar lanera joateko goiz oheratu dira*" pentsatu du. Kris-kras-kras-kras... pertsiana jaitsi du eta lanpararen gerizpeak logelako lau hormak itzalpetu ditu.

Ohean etzan eta gogoratu du; Kontxi ez, Antonia zela. Eskuak bularrean jarri eta bere kolporako otoitzean... *Gure aita zeruetan zerana, santu izan bedi zure izena... baina atera gaitzazu gaitzetik, amen*-errezatu du gauero legez.

Orain, begietako errezelak itxi eta pixkanaka gorputza sentitzeari utzi dio. Gorputza bai, baina garuneko fabrikari atsedendia lortzea zailagoa egiten zaio. *Hipokanpoaren* narriadurek ametsen trafikoa aztoratzen diote. Trafiko zalapartatsuan bada ere, gauean, badaki gogoratu eta ahaztea ez dela krimena. Klaxon hotsak han-hemenka, baina kuttunak ditu gauak;

gogoratzen ez duela ahaztearen eta ahazten duela gogoratzearen guda konstantean.

-Txirrinnnn! -iratzargailuak esnatu du; ohikoa baino beranduago. Pozik, arratsaldean pilota partida dagoela oroitu du, eta motibazioaz ohetik altxatu da azkar batean. Oinak lurrean, eta begien gaineko trafikoa trafikoa, edonork egin lezakeen itaunik existentzialenaz hasi du eguna: "*Ze egun da gaur?*"

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Begirada barnean jartzen

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Argi dago bizitzen ari garen momentua ez dela erraza. Inoiz espero ez genuen gertaera bat etorri zitzaigun gainera ustekabea, abisatu gabe. Gure kaleak eta gure bizitzak aldatu egin dituen bisitaria, alegia, gure mundua hankaz gora jartzera etorri den birus famatua.

Ez dago zalantzarik mundu mailako pandemia hau oso momentu gogorak ekartzen ari dela gure kaleetara, etxeetara eta gure barneko txoko guztietara. Osasunaren egoera, gaixotasuna, galdutako pertsonak, egoera ekonomiko eta soziala... gure azaleko ileak tente jartzen dizkigu, gure barnean ezinegon eta sufrimendu sakon bat sortuz. Egoera honetan gure gorputz barnean beldurra, tristura eta haserrea dira protagonistak une askotan.

Gizakiaren helburua segurtasuna bilatzea da, bizirik mantentzen lagunduko dion osagai ezinbestekoa. Hala ere, pentsatzen jarriz gero, benetan posiblea al da segurtasun hori kanpoan topatzea? Kanpoko egoerak gure kontrolpean daude? Argi dago bizitzak diseinu misteriotsua duela eta ez dakigula etorkizunak zer ekarriko digun. Hala ere, badago leku bat non aukera dugun segurtasun hori lantzeko: gure BARNEAN, alegia.

Kanpoko egoera zaila da, argi dago. Baina, egoera honen aurrean zein jarrera hartuko dugun erabakitzea gure eskuetan dago. Victor Frankl judu austriarra dator kit burura. Psikiatra honek hiru urte pasa zituen lau kontzentrazio eremutan, bere emaztea, guraso, anaia eta lagun asko galdu zituen bidean, momentu urratzaile sakonak biziz. Bizipen hauek zirela eta, ondorio batera iritsi zen: "Kanpoko egoerak dena kendu al digu, gauza bat izan ezik: egoera horri zein erantzun emango diogun erabakitze askatasuna".

Zer egin dezakegu orduan gure ongizatea lantzeko?

Egoera honek eguneroko gauza txikiei erreparatzea ekarri digu.

Gure ongizatea lortzeko pausotako bat horretan datza, gure eskuetan dauden eguneroko ekintza txiki horietan atentzioa jartzea eta hauekin disfrutatzea: liburu polit batekin, lagun baten elkarriketarekin, postre goxo batekin...

Emozioak lantzea ere gomendagarria izan daiteke. Emozio desatseginak (beldurra, tristura...) sentitzea eta "besarkatzea" osasuntsua da, baina ez da gauza bera beldurra sentitzea edo beldurtuta bizitzea. Bigarren kasu honi atentzioa jartzea gomendatzen da, hauek enkistatzeko arriskua baitago.

Ditugun indarguneak gure alde jartzea ere oso interesgarria da, izan, baditugulako. Egoera zailen aurrean hauetan zentratzea asko lagundu ahal digu egoera beste foku batetik begiratu ahal izateko.

Eta bukatzeko, eta Victor Frankl-en eskutik idatzia ixteko, bizitzari zentzua ematen dioten gauzei erreparatuko diegu. Zerk ematen dio zentzua zure bizitzari? Zein arrazoik egiten zaituzte zoriontsu? Zerk konektatzen dizu alaitasunarekin?

Esan bezala, bihotzez animatzen zaituztegu gure barneak ikertze- ra, bidaia polita izan daitekeelako!



OBJEKTIBOTIK

Uralita "erori" zaio norbaiti

Murgilarte dermioan, Larrezaleko bidean aurkitutako amiantoak ingurua zikintzeaz gain, kutsatu egiten du. Material kutsakor honek gaitz asko sortzen ditu, bai naturan, bai pertsonengan. Hau dela eta, aste honetan amiantoaren biktimentzat funtsa eratzea onartu du Kongresuak.



UTZITAKOIA

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Gerrako presoaren gorpua hobitik atera zuten Leten

Manuel Elizalde Lecea altsasuarra izan liteke, 30 urte zituela 1938an hil zutena kartzela lekualdaketa batean

ALTSASU

Nafarroako Memoriaren Institutuak, Aranzadi Zientzia Elkarte-ko talde teknikoarekin batera, Leteko hilerrian hobiratutako pertsona baten gorpuzkiak berreskuratu zituen ostiralean. Nafarroako Errege Artxibo Nagusian eta Itzako Udaleko Bake Epaitegian egindako ikerketen arabera, Manuel Elizalde Lecea 30 urteko altsasuarrarenak izan daitezke berreskuratutako gorpuzkiak. Haren identifikazioa Nasertic-ek duen DNA banku publikoaren bidez egiten dute. Izan ere, haren iloba Juan Jose Zelaia Elizalde duela bost bat urte eman zuen bere DNA lagina helburu horrekin. Zelaia ere deshobiratzearen lekuko izan zen, Ana Ollo Hualde Herritarre-ko Harremanetako kontseilaria, Jose Miguel Gaston Aguas Nafarroako Oroimenaren Institutuaren zuzendaria eta Leteko Kontzejuko ordezkariarekin batera.

Estatu kolpearen ondoren preso hartu eta hil zituzten 13 altsasuarrak bat da Manuel Elizalde Lecea. 1907ko ilbeltzaren 12an jaiotzen Zacariasen eta Bonificiaren semea. Beste hiru arreba zituen, guztiak dagoeneko hilak daudenak. Ezkongabea zen. Beasaingo bagoi lantegiko langilea, CNTko militantea eta Altsasuko Sindikatua

Bakarreko idazkaria zen. Iparraldeko frontean preso hartu zuten 1937ko irailean. Santander aldean zehaztu digu ilobak. "Amonak bera eta Altsasuko beste preso bat bitan bisitatu zituen Dueñasko espetxean", gaineratu du Zelaia.

Lekualdatzean hil

Kantabriako espetxetik Iruñeko kartzelara eramatea erabaki zuten eta, jasotako datuen arabera, lekualdaketa horretan hil zuten. Historia memoria landu dutenek jasoa zuten Oskiate ondoko txipudian hil zutela altsasuarra. Baina Aranzadi zientzia elkarte-ko kideek heriotza erregistroan eta auzitegi-ko txostenean oinarrituta jakin dute Elizalderen gorpua Iharteko zubiaren ondoan opatu zutela 1938ko maiatzean; Leteko bidegurutzean agertu zen, Asterain eta Irurtzun lotzen dituen NA-7010 errepidearen eta herrira eramaten duen NA-7064 bidearen gurutzan.

Zelaiak azaldu digunez, Eritze Itzan dagoen Itzako Zendeako udaletxeko dokumentuan opatutako gorpuari buruzko hainbat datu daude, ziurrenik, udal idazkariak eta sendagileak idatziak direnak. Esaterako, han jasoa dago hildakoa altua zela, begi urdinak zituela, haren arropari buruzko xehetasunak (deshobi-

ratzean larruzko oinetako eta atorraren botoiak agertu dira; atorra, amerikarra, gabardina eta txapela zituen), diru zorroan 38 pezeta zituela, altsasuar bati zuzendutako gutuna zeramala eta buruan 9 milimetroko bala baten tiroa zuela. Hilerriko atetik bi metrora lurperatu zutela ere idatzi zuten.

Aranzadi zientzia elkarteak da gorpuzkiak jaso zituenak eta bera arduratuko da DNA azterketa egiteaz eta hura identifikatzeaz, baldin eta Nasertic-en

lagin bankuan daudenetako bat orain aterako dutenarekin bat egiten badu. Zelaiak ez daki noizko izanen duten azterketaren emaitza. Laginak bat etorriko balira eta Leteko hildakoa Elizalde balitz, Zelaiak jubilatzerakoan bere buruari jarritako zereginetako bat beteko luke, osaba opatzea hain zuzen ere.

Aita

Elizalde ez da Zelaiaren familian errepresaliatua izan den senide bakarra. Bere aita Jose Zelaia

Aguirrek kolpisten kontrako gerran parte hartu zuen. "Gudan zela zauritu zuten eta gerra erdia ospitalean eman zuen. Sendatu eta Kataluniako frontera joan behar zenean, hura erori eta beste asko bezala Frantziara pasa zen. Han kontzentrazio eremu batean baino gehiagotan egon zen. Azkena Gursen. Txilen koinatuak zituen eta haiek eskaera egin ondoren Txilera barkuz joan zen. Ez Pablo Nerudak sustatutako Winnipeg itsasontziaren bidaia ezagunean, beste batean baizik".



Aranzadi zientzia elkarte-ko kideak gorpua deshobiratzen. NAFARROAKO GOBERNUA




Gure ikasleen ahotan



Maider Bengoetxea Gonzalez (Altsasu, 20 urte)
Haur Hezkuntzako hirugarren maila egiten ari naiz Mondragon Unibertsitatean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) hain zuzen ere, Eskoriatzako campusean.

"Oso modu praktikoan aritzen gara eta ikasitako guztia hurbiletik eta bizipenen bitartez ikasten dugu"

tzak eta pixkanaka graduaren inguruan informatzen hasi nintzen. Mondragon Unibertsitateak eskaintzen zuen metodologia eta hezkuntza proiektuagatik aukeratu nuen. **Nola baloratu zenuke orain arte bizitako esperientzia?** Bikaina izan da, oso aberasgarria. Nire ezaugarri pertsonal zein profesionalak garatzeko eta indartzeko aukera eman dit. Askok ikasi dut, esate baterako, haurraren garapenean ager daitezkeen behar, nahi edota hainbat ezaugarri baloratzen, ikusten eta zaintzen. Hori, erabiltzen den metodologiari esker dela esango nuke, oso modu praktikoan aritzen gara eta ikasitako guztia hurbiletik eta bizipenen bitartez ikasten dugu. **Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien**

Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? HUHEZIn erabiltzen dugun metodologia oso eraginkorra eta onuragarria da, oso modu praktikoan aritzen gara beti eta, modu berean, bizipenekin lotura zuzena egiten dugu, gerora begira, ager daitezkeen egoerak modu eraginkorago batean bideratu ahal izateko. HUHEZIKo metodologian barne, etengabeko ikaskuntza eta berrikuntza bizi dugu. Beti ere gure ongizatea, behar edota ezaugarriak erdigunean jarriz. **Unibertsitate-zer da gehien gustatzen zaizuna?** Gehien gustatzen zaidana bertako giroa dela esango nuke, talde kohezio bikaina lortu dugu, konfiantza eta asertibitatez bete. Jasotzen ditugun hitzaldiak oso esanguratsuek dira eta modu berean egiten ditugun dinamikak ere. Baina aipatu beharrekoa benetan, erabiltzen den ebaluatze-eremu da, ebaluazio jarraia izatean bizi dugun prozesua ebaluatzen da.

www.mondragon.edu/prest



Sakana erdialdeko 70 eta 79 urte artekoek txertoaren lehen dosia jaso zuten asteartean Etxarri Aranazko frontoian.

Arbizu eta Etxarri itxita

Koronabirusaren hedapenak bi herrien epidemiologia egoera okertu du eta osasun egoera hobetzeko bie perimetro itxiera ezarri diete. Lehendik indarrean dauden neurriek, herrietatik atera eta haietara sartzeko mugak ezarri dira

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

COVID-19 gaitzaren bilakaera ikusita, eta udalei kontsulta egin ondoren, Nafarroako Gobernuak erabaki du Arbizu eta Etxarri Aranatz itxi eginen dituela. Atzo-ko 00:00etatik hilaren 29ko 24:00ak arte bi herrietarako sarrera-irteerak mugatuta egonen dira. Apirileko lehen 14 egunetan Osasunbideak Arbizun 40 positibo zenbatu zituen eta azken 14 egunetako intzidentzia metatua 3.170 kasukoa izan zen asteartean 100.000 biztanleko. Etxarri Aranatz, berriz, 65 COVID-19 kasu zenbatu dituzte eta azken 14 egunetako intzidentzia metatua 100.000 biztanleko 2.658 kasukoa izan da.

Arbizuko Udalak jakinarazi duenez 80 pertsona daude etxean konfinatuta eta Etxarri Aranazko Udaleko kideek kalkulatu dute 200 bat etxarriar izanen

direla etxetik atera ezinik daudenak. Ondorioz, epidemiologia egoera bideratzeko Osasunbideak bi herrien perimetroa ixtea agindu du bi asterako, apirilaren 15etik 29ra. Epidemiologia egoeraren arabera, neurri hori luzatu, aldatu edo ondorioz gabe uzteko aukera izango dute.

Martxoan baino %52,35 gehiago COVID-19 gaitzak aurten hilabetea Sakanan utzi duen arrastoa honakoa izan da: ilbeltzean 113 positibo, otsailen 148, martxoan 170 eta apirilean, herenegun arte, 259 kasu. Hau da, apirileko au-

PANDEMIAREN HASIERATIK 1.860 SAKANDAR GAIXOTU DIRA, %37,09 AURTEN GAIZKITU DIRA

rrenek 14 egunetan martxoan baino %52,35 gaixo gehiago izan dira ibarrean. Urtearen hasieratik herenegunera arte 690 sakandar gaixotu dira COVID-19 gaitzarekin, horien %37,53 apirileko lehen 14 egunetan gaizkitu dira. Pandemia hasi zenetik 1.860 sakandar gaixotu dira koronabirusarekin, eta horietatik %37,09 gaitza aurten hartu du. Sakanak 20.261 biztanle ditu eta horien %9,18 gaixotu du orain arte COVID-19ak.

Apirileko lehen 14 egunetan gaixotutakoan % 76 (199 kasu) 4 herritan pilatu dira: Altsasun 70, Etxarri Aranatz 65, Arbizun 40 eta Urdiainen 24. Kasu kopurua eta herrien populazioa kontuan izanik, azken hiru herrietako egoera da kezagarriena. Apirileko kasuen gainontzeko %23,16 (60) 11 herrien artean banatzen da: Irurtzun 17, Lakun-

tza 10, Olazti 10, Etxarren 5, Uhartte Arakil 4, Lizarraga 4, Unanu 3, Bakaiku 3, Iturmendi 2, Dorrao 1 eta Lizarragabengoa 1.

Bestalde, pandemia hasieratik gaitzak nabarmenen jo duen herriak Zuhatzu (%31,58) eta Urdiain (%22,09) dira. Atzetik ditu Lizarragabengoa (%12,12), Arbizu (%11,9), Iturmendi (%10,71), Ihabar (%10,29), Irurtzun (%10,24) eta Etxeberri (%10). Bi zifra portzentajera iritsi gabe daude Etxarren (%8,92), Ziordia (%8,86), Ekai (%8,82) eta Altsasu (%8,76). Populazioaren %6 eta %8 kutsatu diren udalerriak dira: Egiarreta (%7,79), Arruazu (%7,55), Etxarri Aranatz (%7,55), Lizarraga (%7,06), Hiriberri Arakil (%7,02), Dorrao (%7,02), Lakuntza (%6,59) eta Olatzagutia (%6,31). Kasu gutxien izan dituzten udalerrien artean daude Irañeta (%5,33), Uhartte Arakil

(%5,07), Bakaiku (%4,72), Unanu (%4,65), Izurdiaga (%3,93), Satrustegi (%3,77) eta Errotz (%1,49). Ez dute positiborik izan ez Aizkorben ezta Urritzolan ere.

Baheketa

Osasunbideak jakinarazi duenez, COVID-19 atzemateko baheketa egingen du Etxarri Aranatz larunbatean, 09:00etatik 19:00etara. PCR proba egitera hots egingen dituzte 15 eta 29 urte arteko arbizuarra eta etxarriarrak. Nafarroako Osasun Zerbitzuetik azaldu dutenez, adin tarte horietakoak hots egingen dituzte "kutsadura eta positibotasun indize handiak dituztelako eta goranzko joera argia erakusten dutelako".

Guztira 508 pertsonari egingen dizkiete COVID-19 gaitza atzemateko proba. Hitzordua zehazteko telefono deia jasoko dute

2021eko Sakanako COVID-19 kasuak

Udalerria	Herria	2021eko apirila	2021ean	Guztira	Populazioaren %
Irurtzun		17	47	230	10,24
Arakil		5	25	67	6,96
	Aizkorbe	0	0	0	0,00
	Urritzola	0	0	0	0,00
	Errotz	0	1	1	1,49
	Izurdiaga	0	3	7	3,93
	Etxeberri	0	0	6	10,00
	Egiarreta	0	0	6	7,79
	Etxarren	5	9	14	8,92
	Ekai	0	1	3	8,82
	Zuhatzu	0	4	6	31,58
	Satrustegi	0	1	2	3,77
	Hiriberri Arakil	0	1	8	7,02
	Ihabar	0	5	14	10,29
Irañeta		0	0	9	5,33
Uhartte A.		4	7	40	5,07
Arruazu		0	3	8	7,55
Lakuntza		10	37	84	6,59
Arbizu		40	65	132	11,90
Ergoiena		8	13	24	6,49
	Unanu	3	3	4	4,65
	Dorrao	1	5	8	7,02
	Lizarraga	4	5	12	7,06
Etxarri A.		66	122	280	11,21
	Etxarri A.	65	121	186	7,55
	Lizarragabengoa	1	1	4	12,12
Bakaiku		3	11	17	4,72
Iturmendi		2	27	44	10,71
Urdiain		24	80	146	22,09
Altsasu		70	202	654	8,76
Olazti		10	37	94	6,31
Ziordia		0	14	31	8,86
Guztira:		259	690	1.860	9,18

ITURRIA: OSASUNBIDEA

guztiek. Baheketan ez dute parte hartu beharko aurreko 10 egunetan proba diagnostiko bat egin dutenak eta azken hiru hilabeteetan PCR edo antigeno test bidez emaitza positiboa izan dutenak. Etxarri Aranazko oinarriko osasun eremuko Lehen Mailako Arretako Taldeko profesionalek egiten dute baheketak Euskalerrriari pilotalekuan.

Erresuma Batuko anduia

Nafarroako Ospitale Gunean herrialdean detektatutako SARS-CoV-2 birusak aztertzen dira astero. Horrela dakite Nafarroan COVID-19aren zein aldaera dagoen. Osasunbideak jakinarazi duenez, Erresuma Batuko anduia edo aldaera ingelesaren ehunekoak gora egin du pixkanaka 2021ean, eta azken astean % 97koa da. Aldaera horrek besteak baztertu ditu eta Nafarroan aldaera nagusia da. Aldaera klasikoarekin konparatuta, epidemiologia ondorioak ere desberdinak dira. Alde batetik, 15 urtetik beherakoetan errazago transmititzen da. Bestetik, Ingalaterrako aldaerarekin gaizkituz gero aldaera klasikoarekin baino errazago bukatuko du gaixoak ospitalean, adin-talde bere probabilitate bikoitza da. Nafarroako dabilzan SARS-CoV-2 aldaeren artean, orain arte, ez dago alde nabarmenik ez txertoaren eraginean, ezta hilgarritasunean ere.

Lan karga

Etxarri Aranazko osasun etxeko langileen lan karga handitu du honek guztiak. Eta Osasunbideak ez du langile gehiago bidali.

Txertaketa txanda berria hasi du Osasunbideak

Etxarri Aranazko osasun eskualdeko 70 eta 79 urte artekoen txertaketa asteartean hasi zuen

ETXARRI ARANATZ

Arriskua duten kolektiboetako kideek lehentasuna dute COVID-19 gaitzaren kontrako txertoa jasotzerakoan. Osasunbidea ondoren adinaren arabera txertaketa egiten hasi zen, lehenik 80 urte edo gehiago duten pertsoneri. Eta hura bukatuta 70 eta 79 urte bitarteko txertaketa txanda iritsi da. Asteartean Etxarri Aranatzen Pfizer txertoa jaso zuten Lakuntza eta Urdiain arteko 582 sakandarrek. Bigarren dosia maiatzaren 4an jasoko dute.

Irurtzungo oinarriko osasun eskualdeko 80 urtetik gorakoek bigarren txertoa asteazkenean jasoko dute Irurtzungo kiroldegian. Eta ostegunean, Arakil eta Arruazu bitarteko 70 eta 79 urte bitarteko sakandarren txertaketa txanda izanen da. Altsakuko oinarriko osasun eskualdeetako adin tarte horren txertaketa noiz izanen den ez dute zehaztu.

Bestalde, Etxarri aritu zen langileetako batek azaldu zuenez, "guk duela aste bat genekien txertaketa gaur egiten zela. Baina hitzordua emateko deiak egiten gaizki ibili dira, igandean eta atzo aritu ziren. Jende asko ez zegoen etxean eta dei galdua ikustean hona etorri dira jakiteko noiz zuten txertaketa ordua".

Udaletatik ardurarako deia egin dute

Arbizuko eta Etxarriko udal ordezkariak herritarrei arduraz jokatu eta indarrean diren prebentzio neurriak betetzeko deia egin dute. Leku itxietan bilerarik ez egiteko eta bizikidetzaren unitate bereko ez badira 4 pertsona baino gehiago ez elkartzeko

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Bai Javier Razkin Flores bai Silvia Marañon Chasco alkateendako "benetan garrantzitsua da, herrian inor arriskuan ez egotea da eta, horretarako, kutsatzeak ekiditea". Horregatik arbizuar eta etxarriar guztiei "arduraz jokatzeko eta ezarritako prebentzio-neurriak betetzera" deitu dituzte. Gogorarazi dutenez, "oso garrantzitsua da urruntze soziala eta ahalik eta gehien murriztea gure familia-unitatetik kanpoko pertsonetara harremanak".

Bi alkateek esan dutenez, "zenbat eta azkarrago kontrolatu korobirusaren hedadura, lehengo kenduko digute perimetro itxiera. Zaindu gaitzen eta zaindu ditzagun ingurukoak".

Mugikortasuna

Bi herrien perimetro itxiera ezarrita dagoen bitartean arbizuarrek eta etxarriarrek bakarrik beraien dermionan ibiltzeko aukera izanen dute. Ezin izanen dira dermiotik inolako justifikaziorik gabe atera. Arbizuarrek eta etxarriarrek justifikaturiko joan-etorriak egiteko honako arazoietako bat izan beharko dute, dagokion ziurtagiriarekin egiaztatu beharko dutena: osasun arazoak; lan edo lege arloko betebeharrak betetzea; uniber-



Arbizuarrek terrazan. ARTXIBOA

tsitateetara, ikastetxeetara eta heziketa zentroetara joatea; ohiko bizilekura bueltatzea; adinekoei, adingabeei, mendekotasuna dutenei, desgaitasuna dutenei edo bereziki kalteberak direnei arreta ematea eta haiek zaintzea; finantza eta aseguru entitateetara edo erregai zerbitzugunetara joatea; organo publikoen, judizialen edo notarioen jarduerak; baimenak eta agiri ofizialak berritzea; azterketa edo proba ofizialak eta orain arteko neurriak baimentzen dituzten kirol txapelketak.

Arbizuarrek ibilgailuren batekin herritik ateratzeko autobia erabili beharko dute. Etxarriarrek Lizarragako bidean dagoen autobia irteera erabili beharko dute. Gainera, Zumurdiñeta industrialdean dagoen enpresaren batera joan behar duten etxarriarrek aipatutako autobia irteeratik Haritzalkokora joan beharko dute industrialdera iristeko. Bideberri zaharra itxita dute bi herrietan. Herrien sarra-irteerak zaintzen eta ziurtagiriak eskatzen Foruzaingoa eta Guardia Civilako patruilak daude. Arbizuko Udalak eskatu du norbaitek polizia gehiegikeriarik jasanez gero udaletxera hots egiteko.

Bestelako neurriak

Arbizuko eta Etxarriko dendak, tabernak eta jatetxeak zabalik daude, baina herrikoendako bakarrik; Nafarroako gainerako establezimenduen murrizketa berberak dituzte. Arbizuko kiroldegia eta liburutegia herritarrek bakarrik erabil ditzakete itxialdia indarrean den bitartean. Etxarriko Udalak, bestalde, kultur etxea, frontoia, futbol zelaia eta autokarabana gunea itxi ditu. Gainera, aurreikusitako kultura-eta kirol jarduerak guztiak eta azoka ez dira egiten.

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:15 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN
ERAKUSLEIHOA,
BELEIXE IRRATIA. JARRI
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

irratia@beleixe.eus



Tratamendu plantara ezin da joan. Emausko Trapuketarien zerbitzua eskatzeko 'https://labur.eus/HnUEa' edo 948 464 867.

Itxieragatik aldaketak Hondakin Zerbitzuan

Sakanako Mankomunitateak Arbizun duen hondakinen tratamendu plantara ezin izanen da inor joan herriko perimetro itxiera bukatu arte. Hondakin Zerbitzuak egoerara egokitu eta zerbitzuak eskaintzen segituko du

SAKANA

COVID-19 gaitzak eragindako epidemiologia egoeragatik Osasunbideak Arbizuren perimetro itxiera agindu du. Erabaki horrek Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuarri zuzenean eragiten dio, arbizuarrek ez diren sakandarrak ezin izanen baitira hara joan. Arbizuko tratamendu plantan sakandarrei hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkienez, Mank-ek erabaki du lan egiteko moduan aldaketak egitea bere zerbitzu eskaintzari eusteko.

Beraz, hilaren 29ra arte indarrean izanen diren hainbat erabaki hartu ditu Hondakin Zerbitzuak. Lehenik, atez ateko sistema dagoen herrietan bizilagunen batek pertza behar badu, Mank-eko hezitzaileek bere posteko zintzilikarioan utziko diote. Bestalde, konpostagarriak diren poltsak behar dituztenek Altsasuko garbigunetik pasa beharko dute, astegunetan, 09:00etatik 14:30ak arte. Garbigune Altsasuko hilerriaren eta Txioika ikas-

tola arteko Santo Kristo Barren kalean 250 metro aurrera eginda opatuko dute interesatuek.

Etxetik altzariak, tresna elektrikoak, tamaina handiko tresnak, hondakin arriskutsuak edo bestelakoak kendu nahi dituztenak hiru aukera dituzte. Batetik, Altsasuko garbigunera eraman. Bestetik, Emausgo Trapuketarien doako bilketa eska dezakete eta etxean jasoko diote (tamaina handiko hondakinak ez). Eta, azkenik, astero Sakana zeharkatzen duen garbigune mugikorren eraman daiteke.

Moldaketa gehiago

Arbizuko tratamendu planta itxita dagoenez, sakandarrak ezin izanen dira hara joan bi

HARREMANETARAKO:
900 730 450 (DOAN)
H22@SAKANA-MANK.
EUS EDO HZ5@
SAKANA-MANK.EUS

astez konposta hartzera. Eta perimetro itxiera bukatu arte zain egon beharko dute. Gauza bera gertatzen da konpostagailuak nahi dituztenekin, bi aste itxaron beharko dutela. Bestetik, Altsasun ezarria dagoen 5. edukiontzirako materiala behar dutenek (poltsa konpostagarriak, kuboak, giltzak), lehenik hezitzaileekin hitz egin beharko dute eta, ondoren, Altsasuko garbigunetik pasa beharko dute hitzartutako materiala jasotzera.

Hondakinen kudeaketa egokia egiteko Mank-en eskuorriak edo gidak nahi dituztenek ibarreko erakundeko hezitzaileekin harremanetan jarri daitezke eta haiek Whatsapppe edo posta elektronikoko bidez bidaliko dute. Landareak kimatu edo inausi dituztenek materia organiko hori Altsasuko garbigunera eramateko aukera izanen dute. Han ere utz daitezke obra txikiak sortutako hondakinak, egur zatiak eta txatarra.



Eduardo Urrestarazu Fernandez eta Ana Goien Perez, Sodenako kide berriak.

Urrestarazu Sodenako kontseiluko kide izendatu dute

Enpresa publikoko administrazio kontseiluko kide izendatu dute haren 'enpresa-profila sendotzeko'

BAKAIKU

Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Departamentuaren menpekoea da Sodena enpresa publikoa, eta haren buru da Mikel Irujo Amezaga kontseilaria. Hark egoki jo du Sodenaren administrazio kontseilua enpresa arloko profilekin indartzea. Eta horretarako aukeratutako bi pertsonak dira Ana Goien Perez eta Eduardo Urrestarazu Fernandez baikaikuarra.

Haiekin batera aipatu administrazio-kontseiluan daude Izaskun Goñi Razkin (Nafarroako Gobernuako Enpresa Politikako, Nazioarteko Hedapeneko eta Laneko zuzendari nagusia), Jorge Ruiz Martin (Mekatar Taldeko zuzendari nagusia), Miguel Ugalde Barberia (Fagor Ederlan Tafallako zuzendaria) eta Jose Manuel Arlaban kideek osatzen dutela. Era berean, Sodenako administrazio-kontseiluko kide izan dira Manuel Torres Martinez hil berri den enpresaburua eta Yolanda Blanco Fernandez Industria, Energia eta Proiektu Estrategikoen S3 zuzendari ohia.

Bakaikuarraz

Sodenako kontseilari berri baikaikuarra Nafarroako Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua da eta unibertsitate bereko Praktika Juridikoko eskolan diplomatua dago, gainera, IE Business School-en Negozioen Administrazioarako Masterra du. Urrestarazu gaur egun Agrisolutionseko Europa, Amerika, Asia eta Latinoamerika dibisio-

ko buru da, Venanpri Group talde kanadarraren filiala, Patricio Echeverría korporazio ohia. Aldi berean, Urrestarazu Legazpiko Bellota Agrisolutionseko zuzendari nagusia da, baita Alemaniako Remscheiden egoitza duen Carls Sülberg Agrisolutionsea ere.

Enpresa arloan eskarmentu handia du eta nazioarteko negozio talde industrialetan izan duen lidergoan nabarmendu da. Horretan, batez ere hainbat sektore eta profiletako marka eta estrategien eraikuntzan aritu da, esaterako, Arfe, Patentes Fac edo Patricio Echeverría-Bellota familia enpresendako, Azkoyen Industrial kotizatuarendako, Assa-Abloy/Tesa multinazionalarendako eta Venanpri Group 'private equity'-arendako. Azken urteotan baikaikuarrek Agrisolutionseko ekipo globalen integrazio estrategikoa bultzatu du. Agrisolutions munduko liderra da nekazaritzako makinerian, eta fabrikazio-instalazioak ditu zazpi herrialdetan. Lan honek Ipar Amerikako kulturaren ezagutza sakona eman dio.

Lan eremutik kanpo, Urrestarazuk Euskal Herriko Udako Unibertsitateko, Deusto Business Schooleko, Mondragon Corpeko, CENeko eta Indusmediako mintegi eta ikastaro ugartan parte hartu du, hizlari eta irakasle bisitari gisa. Hirueleduna da euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, eta maila aurreratua du frantsesez eta italieraz.



Jasotako esnea kargatzen. @BAKAIKU_INFO

Errefuxiatu eremuetarako esnea jaso dute

Greziako Lesboseko errefuxiatuak laguntzen aritzen da Zaporeak erakundea. Eremuetan dauden pertsonen elikadura ona bermatzea da elkartearen helburua. Gobernuak errefuxiatuei ematen diena nahikoa ez dela eta Zaporeak-ek fruta eta esnea ematen die. Fruta Grezian erosten dute, baina esnea hemendik eramatea erabaki dute. Sakanan 5.000 litro baino gehiago jaso zituzten.

Guardetxeko lanak aurten eman nahi dituzte

Aralar mendiko basozainaren egoitza hartuko lukeen eraikina egiteko lanak aurten eman nahiko lituzke foru administrazioak. Aurreikusitako bi eraikinetan txikiena eraikiko omen da

SAKANA

Nafarroako Gobernuak 2009ko apirilean bota zuen Aralarko guardetxea. Ordutik han jasoko den eraikinen berri ematen duen argibide oharra besterik ez dago. Bi eraikinez osatuta dago foru administrazioak zehaztutako proiektua. Alde batetik, basozainaren bulegoa izanen dena dago, 87 metro karratuko eraikina izanen litzakeena. Bestetik, 150 metro karratuko eraikin nagusia legoke, besteak beste, taberna, interpretazio gela eta turismo bulegoa hartuko lituzkeena.

Aralar Elkarteko presidente Patxi Xabier Razkin Sagastibeltzak jakinarazi duenez, "Maria Chivite Navascues presidenteak esan digu



Duela 12 urte botatako eraikina. UTZITAKOA

aurten eginen dutela basozainen bulegoaren lanen deialdia. Horretarako, 125.000 euro daudela esan zuen". Aurretik Landa Garapen eta Ingurumen kontseilari Itziar Gomez Lopezek esana zuten deialdia 137.000 eurokoa izanen zela.

Kopuru batekin edo bestearekin, hirugarren aldia izanen da Nafarroako Gobernuak guardetxeko lanen lehen fasea emateko deialdia eginen duena. 2018an lanen truke 81.121,34 euro eskaini zituen eta enpresa bat bera ere ez zen aurkeztu. 2019an lanak 112.000 euroren truke atera ziren eta deialdia hutsik gelditu zen.

Europa

Nafarroa Ezagutu Sarea da naturagune babestuek kudeatzen dituzten herrialdeko entitate eta pertsonen osatutako sarea da. Bertan dago Aralarko Elkartea. Guardetxerako duten egitasmoaren berri jaso dute Razkinen bidez. Eta sarekiderei interesgarria iruditzaie. "Eraikin nagusia, 400.000 euro inguruko kostua lukeena, Europako dirulaguntza deialdi batera aurkeztu daitekeela esan dute. Aukerak aztertzen ari dira", azaldu du elkarteko presidentek.



COVIDAGATIK ETXARRI ARANATZ
ITXIALDI PERIMETRALEAN EGONGO DA

EZ DADILA GUREKIN
LANEAN JARRAITZEKO
ARAZO IZAN!

DEITU ETA DOAN
ZURE MAKINAREN BILA JOANGO GARA!

948 46 17 34



948 46 17 34
Zumurdiñeta Ind., 6
31820 Etxarri Aranatz

948 50 03 92
Akaborro Ind., 19
31860 Irurtzun

Karasatorre eta Parot hurbildu dituzte

Juan Ramon Karasatorre Aldaz Castellon Albocassereko espetxetik (480 km) Kantabriako El Duesoko espetxera (170 km) eta Unai Parot Navarro Cadizko Puerto III kartzelatik (1.020 km) Leongo kartzelara (370 km), eraman dute.

ETXARRI ARANATZ

Etixerat elkarteak jakinarazi duenez, Juan Ramon Karasatorre Aldaz eta Unai Parot Navarro preso etxarriarrak herritik gertuago dagoen kartzelara lekualdatu dituzte. Espainiako Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak Karasatorreren lekualdaketaren berri otsailaren 5ean eman zuen eta hura ostira-lean bukatu zen. Han Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) 15 kide zeuden preso martxo akaberan. Paroten lekualdaketaren berri martxoaren 26an eman zuen eta lekualdaketa herenegun bukatu zen. Leongo kartzelan EPPKko bederatzi kide zeuden preso martxoaren 31n. Lekualdatzeaz aparte bigarren gradura ere pasa dute preso eta, beraz, espetxe onurak baliatzeko aukera izanen du.

Karasatorreren eta Paroten lekualdaketekin Espainian preso dauden etxarriarren lau lekualdaketatik hiru egin dituzte.



Etxarriak presoek herriratzea eskatzen. ARTXIBOA

Aurrena Luis Mariñelarena Garziandiarena izan zen A Coruña-tatik (600 km-tara) Palentziako kartzelara (310 km-tara). Iragarria dute Asier Carrera Arenzana Palentziako kartzelatik (310 km-tara) Donostiakora lekual-

datuko dutela, baina oraindik halakorik ez dute egin.

Gaixo eta preso

Osasunaren Nazioarteko Egunean, hilaren 7an, Sare Herritarren espetxean larriki gaixo

diren pertsonak gogora ekarri zituen plazan kontzentrazioa eginenez. Pandemiaren testuinguruan larriki gaixo dauden preso osasuna lehenetsi behar dela adierazi zuten Sareko kideek. Larriki gaixo dauden 17 euskal preso artean dago Jon Gurutz Maiza Artola etxarriarra, Lan-nemezango kartzelan preso dagoena.

Preso horien osasun egoerari bi faktorek eragiten dietela nabarmendu zuten. Batetik, euskal presoek ezartzen zaien salbuespenezko espetxe politika, "gaixo diren preso kasuan gaixotasunari aurre egiteko aukerak murrizten ditu, gertuko babes, bizi baldintza duinak edota konfiantzazko medikuen jarraipena ez izateak eragin zuzena baitu". Eta, bestetik, "espetxeek ez dute behar bezalako osasun zerbitzua emateko aukerarik eskaintzen, eta are gutxiago COVID-19ak eragindako egoerak eskatzen dituen neurriak errespetatzeko aukera". Sareko kideek azpimarratu zuten, "ezin dugu onartu segurtasun politiken aitziaren pean preso oinarriko eskubideak zapaltzen dituen politikarik. Preso guztiek konfiantzazko mediku edo psikologo baten laguntza jasotzeko eskubidea dute".

Bestalde, Sortuk preso egoerari buruzko hitzaldia antolatu du gaurko, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxean. Bihar, 17:00etan, manifestazioa deitu du Iruñean.

GKSk jardunaldiak antolatu ditu apirilean

Gazte langileei zuzendutako 3 hitzaldi prestatu eta M1-erako manifestazioa deitu du

SAKANA

Sakanako Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) *Gazte langileok klase batasuna!* jardunaldiak antolatu ditu apirilera. Saio horien bidez Sakanako Gazte Koordinadora Sozialistako kideek nahi dute "gazte langileoi zehazki eta proletalgoari osotasunean eragiten dituen aziezia hausnartzeko aukera". Jardunaldiei gazteen kriminalizazioari buruzko hitzaldiak eman zion hasiera Arbizon joan den ostegunean. Gaur pobrezia orokortua gai hartuta hitzaldia izanen da Altsasuko gaztetxean, 18:00etan. Etxarri Aranatzen egitekoa zen hitzaldia, baina perimetro itxieragatik Altsasura lekualdatu dute.

Jardunaldiak despeditzeko beste bi hitzordu iragarri dituzte. Hilaren 24an, Irurtzungo kultur etxean, langile mugimendutik ateratako irakaspenak hitzaldia izanen da lehenik. Eta hura despeditzean Jasone eta Nerepe abeslariak kontzertua eskainiko dute. Bukatzeko, Sakanako Gazte Koordinadora Sozialistak maiatzaren 1erako, Langileen Egunerako *Klase batasunaz, sozialismoa eraiki* manifestazioa deitu Altsasun, 19:00etan, Foru plazatik abiatuta.

Errepublikako banderak ikusgai izan ziren herengun

Eibarren Espainiako II. Errepublikari aldarriratu zutela 90 urte betetzen ziren herenegun. Pandemiak eragindako epidemiologia egoeratik errepublikaren aldeko alderdi eta mugimenduek ez zuten ekitaldi publikorik antolatuko. Estatu kolpearen ondorioz langile batailoiaren egon zirenen omenezko eskulturaren lore eskaintza egin zuten.

OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA

OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDAL HIRIGINTZA PLANAREN SG-V2 SISTEMA OROKORRERAKO UDAL PLAN OROKORRAREN ZEHAZTAPEN XEHATUAK ALDATZEKO HASIERAKO BATEZ ONESTEA

2021eko martxoaren 31ko batzarrean, Olazti Udalararen Osoko Ezohiko Bilkurak adostu zuen hasiera batez udal hirigintza planaren SG-VS sistema orokorrerako Udal Plan Orokorraren zehaztapen xehatuak aldatzea.

Espedientea jendaurrean egonen da hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik

hasita, eta interesdunen eskura egonen da Udal Bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten; hori guztia Lurralderen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. eta 77. artikuluetan xedatua aplikatu beharrez.

Olaztin, 2021eko apirilaren 9an.
Joseba Vizuete Ascargorta alkatea.



DUELA 25 URTE...



Fernando Urkia Bakaikoa omendu zuten

1896ko apirilaren 15ean jaio zen Ainttonekua etxean Fernando Urkia Bakaikoa. Altsasuko kaputxinoetan ikasi zuen. Handik Oñatira joan apaizetarako ikasteko. Ikasketak bukatu eta Oñatin bertan 17 urtez irakasle izan zen. 1936ko estatu kolpearekin Frantziara lehenik eta Argentinara ondoren joan zen. Saltako gotzain izendatu zuten. Erroman hil zen 63 urte zituela. Idazlea, antzerkigilea, musikagilea eta organojolea izan zen.



Unanuko Kontzejuak Berriainerako pista lehena zati konpontzen ari da.

Berriainerako pista konponketengatik itxita

Maiatzaren 3ra arte itxita egonen da. Mendizaleei autoak behar bezala aparkatzeko eskatu diete

UNANU

Nafarroaren perimetro itxierari udaberriko porrak batu zitzaizkion aurreko astean. Jendeak aisialdirako denbora gehiago zuenez, Nafarroa ezagutzeko baliatu zuen. Asko eta asko izan ziren Nafarroako mendietako batera joatea erabaki zutenak. Hori guztia kontuan izanda eta Unanun "asteburua nahiko desastre" izan zela esan digu Jesus Mari Balda Mercero kontzeju buruak. Izan ere, Berriain mendira igotzeko asmoz Unanura makina bat jende autoz joan zen eta denek ez zituzten ibilgailuak behar bezala aparkatu. Horrek unanuarrei hainbat traba sortu zizkien, eta larrialdiren bat izanez gero zerbitzuak behar bezala iristeko traba lirake gaizki aparkatutako ibilgailuak.

Mendizaleak herrian edo handik kanpo aparkatzera behartuta daude, Berriainerako pista

martxoaren 22tik itxita dagoelako. Unanuko Kontzejuak hura berritzeko lanak egiten ari da. Kaskalluzko pista da eta malda handia du. Euria egiten duenean urak kalteak sortzen ditu. Horri konponbidea emateko porlana zabalduko dute. Herritik 380 bat metrora pista ixten duen langa bat dago. Unanuko Kontzejuaren helburua da bidea haraino konpontzea da. Baina aurrekontu handia denez, hainbat urtetan eginen dituzte lan horiek.

Aurten herritik ur biltegirara arteko aurreneko 72 metroan porlana zabalduko dute. Horrekin batera, ezpondak garbitu dituzte. Mugitutako soberako lurra langaren aurretik bidearen ezkereskuin zabaldu dituzte. "Momentuz ez dugu ongi prestatuta utziko toki hori, gero eginen dugu zerbait", esan du Baldak. Pistako lanen lehena faseak 14.000 euro inguruko aurrekontua du.

Udalak herrian dituen bi partzela salduko ditu

Uriz kalearen ondoan daude eta enkante bidez salduko ditu. Bertan etxea egin eta bizi nahi dutenei zuzendutako salmenta da. Bestalde, gaur despedituko da baratze ekologiko baten erabilera eskatzeko epea, udaletxean egin behar dira eskaerak

LAKUNTZA

Etxea jasotzeko aukera duten bi partzela enkante bidez salduko ditu Lakuntzako Udalak. Baina salmenta egin aurretik partzei buruzko informazioa eta hauen baldintzei buruzko informazioa emateko informazio epea zabaldu du Lakuntzako Udalak. Interesa zuten pertsonen hilaren 8an, 12an eta 15ean udaletxetik pasa dira argibide eske. Bi partzela horiek Uriz kalearen ondoan daude, Aralar burdindegaren parean. Aurrenak 285, 45 metro karratuko azalera du eta bigarrenak 330,02 metro karratu. Bakoitzaren hasierako prezioa enkantean 36.000 eurokoa izanen da.

Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu duenez, "ez dugu nahi partzelak erosten dituenak haiekin espekulatzea nahi. Etxea egiteko eta bertan bizitzeko izatea nahi dugu. Horregatik, bi baldintza izanen dituzte partzelek: erosten direnetik bost urtetara etxea egin izatea eta partzela 10 urtetan ezin izanen dela saldu". Udalak salduko dituen bi partzela horietaz aparte, beste bi jaberrenak diren bi lursail gehiago daude inguru horretan.

Alkateak jakinarazi duenez, "dena ongi badoa, lursail horrek



Udalak salduko dituen partzelak dauden tokia.

urte bukaerarako urbanizatuta egon beharko luke. Eta jabe berriei partzelak zerbitzu guztiekin emanen litzaizkieke". Urbanizazioa egitean sortuko den partzela handiena udalarena da. "Zuzkidura lurzorua da eta udalean beti pentsatu izan da hor eguneko zentroa egitea. Baina ikusi behar zein erabilera emanen zaion", zehaztu du alkateak.

Baratze ekologikoen eskaera

Lakuntzako Udalak sustatutako baratze ekologikoak Larrañondo dermian egonen dira baratze

horiek. 1.818,24 metro karratuko lursail batean 50 metro karratuko 20 baratze sortuko ditu udalak. Alkateak jakinarazi duenez, maiatza hasierarako lursailak prest egonen dira eta ordurako banatu nahi dituzte baratzeak. Interesa dutenek herrian, gutxienez, urte betez errolatuta egon beharko dute. Hartzen duenak hura 5 urtez erabiltzeko eskubidea izanen du eta, azkenik, urteko 50 euro pagatu beharko dio udalari. Gainera, eremu komunetan egin beharreko auzolanetan aritu beharko du.

Herri aprobetxamenduak eta bideak arautu ditu kontzejuak

Orain arte ohiturazko erabilera zena, ordenantza bidez araututa gelditu da

IZURDIAGA

Izurdiagako Kontzejuak herri lurretako aprobetxamenduen eta hobekuntzen plan berezia onartu zuen. Eta dokumentu hark gobernuaren oniritzia jaso zuen garilaren 4ko 278/2017 Ebaz-

penaren bidez. Plana egin eta gero Izurdiagako Kontzejuak erabaki zuen herri lurretako aprobetxamenduei buruzko araudia egitea. "Orain arte ohituraz erabili izan dira herriarenak ziren ondasunak. Baina zenbait

gauza egiteko araudi bat izatea komenigarria zela konturatu ginen. Esaterako, dirulaguntzak eskatzeko, alokatzeko..." Luis Migel Beraza Ameztegi kontzeju buruaren azalpenak dira. Beraz azaldu duenez, "herriko lurren aprobetxamendua alokatzea kontzejuaren diru sarrera polita da". Izurdiagar guztiek aprobetxatu eta erabili ditzaketen herri ondasunen administrazioa, xedapen egintzak, defentsa, berreskurapena eta aprobetxamendua erregulatu dituzte.



Izurdiagako Geltoki auzoa. ARTXIBOA

60
-
%80
-
12

Guaixe Fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 60 euro ordaindu eta 48 euro
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2020ko ziurtagiria eskatu:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,

Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



Udalak bi dirulaguntzen deialdia egin du

Eskabideak udalaren erregistro elektronikoa aurkeztu daitezke maiatzaren 10era arte

ALTSASU

Urtero moduan, Altsasuko Udalak nazioarteko lankidetzako programak edo garapenerako laguntzak bultzatzeko dirulaguntza deialdia egin du. Hori bultzatzeaz aparte, Altsasuko Udalaren asmoa da atzerrian garatuko diren proiektu horien bidez herriarrak sentsibilizatzeko zereginak egitea eta Altsasuko komunitateak eta elkarrekin proiektuan parte hartzea sustatzen duten jarduerak izatea. Aurten deialdi horretarako udalak 6.000 euro bideratuko ditu.

Horrekin batera, Altsasuko Udalak irabazi asmorik ez duten erakunde edo elkartei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du. Eskaera egiten duten entitateen proiektuek honako arloetako bat izan beharko dute langai: biztanle sektoreen bizibaldintzak hobetzea, integrazioa, aukera berdintasuna, indarkeriarik eza, giza eskubideen urraketa ezagutu eta konpontzeko azterlanak egitea, gizarte arriskuko egoerei aurrea hartzea edo urraketa, babesgabetasun egoerak tratatzea ahalbidetuko duten ekimenak sustatu eta dinamizatzea da laguntzen helburua. Altsasuko Udalak 6.200 euro banatuko ditu.

Arregiri buruzko liburuaren bigarren edizioa kalean

Mikel Arregi gogoan herri ekimenak izen bereko lakuntzarri buruzko liburua ilbeltzaren 24an aurkeztu zuen. Lakuntzako kultur etxean egindako aurkezpenean herri ekimeneko kideek azaldu zuten, liburuaren helburua zen "gure historia bildu eta hurrengo belaunaldiei begira jasoa geratzea". Argitalpenean Arregiren biografiaz aparte,

Udalak aldi baterako hiru kontratazio egingen ditu

Lan-poltsa osatuko da hautapen prozesua gainditzeko izangaiekin

OLATZAGUTIA

Lehen mailako igeltsero ofiziala eta zerbitzu anitzetako bi peoi aldi baterako kontratatu nahi ditu Olatzagutiko Udalak. Kisu-gileari sei hilabeteko kontratua egingen dio udalak eta hura luzatzeko aukera legoke jakinarazi du. Zerbitzu anitzetako peoiak, berriz, ere urte erdi batez lan egingen du Olatzagutiko Udalarendako lanean. Azkenik, basogintza eta lorezaintza lanak egin eta udalaren zerbitzu anitzeko lantaldean ariko den peoiak hiru hilabeteko kontratua izanen du. Hiru ere Olatzagutiko Udalaren lanaldi osoko kontratua izanen dute, astegunetan, eta lan ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko da.

Eskaintako hiru lanpostuetakoren batean interesa duten pertsonen enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon beharko dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, eta Olatzagutiko Udalak zehaztutako oinarrietan araututako baldintzak bete beharko dituzte. Eskatutako dokumentazioa eskaerarekin batera aurkeztuko da Olatzagutiko herriaren etxean edo, bestela, alsasua@navarra.es helbide elektronikoa apirilaren 26ko 14:00ak baino lehen.

Lakuntzako Udalak martxan jarritako ikerketa batzordearen dokumentuak eta familiaren, Arregiren lagunek eta abarren kontakizunak daude. Eta "argazki asko daude. Gertatutako guztia ulertzeko eta ikusteko moduzuzenena dela iruditzen zaigu".

Liburua 15 euroren truk eskuratu daiteke Lakuntzan Ogi berri, Aliproxen eta Estankoen; Etxarri Aranatzeko Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. Sakanako liburutegi publikoetan daude ere.

Hirigintza plana, nahi baino atzeratuago

Pandemiak eta bestelakoek ibarreko hirigintza planaren erredakzioa atzeratu du. Bestalde, Ergoienako Udalak herriaren etxean lanak egin ditu: ganboikora igotzeko eskailerak jarri eta han dagoen artxiboa txukundu

ERGOIENA

Ergoienako Udalak da inbertsioetara gutxien bideratzen duen ibarreko udala. Udalerriko administrazio kudeaketa da gehien bat egiten duena eta udaletxea da duen jabetza bakarretakoa. Herri lanak eta bestelako inbertsioak Ergoienak ibarreko hiru kontzejuek egiten dituzte. Ergoienako Udalak motordun ibilgailuengatik edo bestelako zergengatik jasotzen duen dirua Lizarragako, Unanuko eta Dorraoko kontzejuei ematen die, herri bakoitzean jaso duenaren pare. Horregatik, aurtengo aurrekontua 313.200 eurokoa bada ere, inbertsioen atalean 1.000 euro besterik ez daude.

Udalaren esku administrazio kudeaketa dago eta horren baitan aparteko garrantzia du hirigintza planak. Egungoa 1996koa da eta hura eguneratu dute. Azken hiru legegintzaldietan horretan saiatu da udala. Emeterio Senar Elso alkateak eta Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrena Lurralde Antolamenduko kontseilariak eta bigarren lehendakariordeak lastailaren 29an Ergoienak hirigintza plana egiteko hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmenaren arabera, foru administrazioak hirigintza planak balio dituen 48.000 euroen



Ergoienako Udalaren artxiboa txukundu egin dute. ERGOIENAKO UDALA

%80 pagatuko ditu. Senarrek azaldu duenez, sinatu ondoren bizpahiru bilera izan dituzte planaren erredaktoreekin. "Baina pandemia eta bestelako arazoengatik atzeratuta dago guztia. Guk legegintzaldi akaberarako plana egin izatea nahi genuen, 2023rako. Baina, nire iritziz, ez dute bukatuko. Horretan saiatuko direla esaten dute".

Bestalde, gobernuak despopulazioaren kontrako jardueretarako dirulaguntza eman zien herrialdeko udal guztiei joan den urtean. Ergoienako Udalaren

asmoa zen jasotako 16.518 euroak hiru kontzejuen artean banatzea eta bakoitzari 5.506na euro ematea beraien herrietan inbertsioak egiteko. Foru administrazioak, ordea, ez zion utzi Ergoienako Udalarari diru banaketa hori egiten, bere egitasmo batean inbertitzera behartu zuen udala. Senarrek azaldu duenez, "udaletzeko ganboikoan artxiboa dago. Hara igotzeko alkatearen bulegotik itxura gabe ibiltzen ginen. Diru hori egurrezko eskailera bat jarri eta artxiboa txukuntzeko erabili dugu".

Bake epailearen eta haren ordezkoren karguak betetzeko

Lakuntzako Udalak jakinarazi duenez, herriko bake epaile titularraren eta ordezkoren karguak hutsik gelditu dira. Horregatik, bi kargu horiek betetzeko deialdia egin du Lakuntzako Udalak. Ardura horietan interesa duten pertsonen beraien eskaerak udaletzeko bulegoetan aurkez ditzakete maiatzaren 4ra arte.

Bakaikun etxerako egur loteak eskatzeko garaia

Bakaikun Udalak jakinarazi duenez, etxerako egurra eskatu nahi duten bakaikuarrek hilaren 29ra arte egin dezakete. Horretarako, bakaikuarrek udalari beraien nahia azaldu behar diote. Hiru bide dituzte horretarako: udaletzeko postontzian idatzizko eskaera utzi, udala@bakaiku.eus e-posta helbidea edo 948 562 509 telefonoa. 20 euro balio dute.

Iturmendin arkitektura oztoporik gabeko udaletxea

Iturmendiko Udalak bere egoitza irisgarri egiteko 15.180,66 euro erabili ditu igogailua jartzeko. Herriaren etxea zaharberritu zenean igogailua jartzeko tartea utzi zen eta han 2020ko akaberarako lanak egin eta igogailua urte hasieratik dago erabilgarri. Horrekin batera, herriaren etxeko sarreran zegoen arkitektura traba kendu zuen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Gazte langileok klase batasuna jardunaldiak.
Hitzaldia: Pobrezia orokortua.
18:00etan, Gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda: Merendola.
18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Preso politikoen nazioarteko eguna: Askatasuna.
Hitzaldia: Euskal preso politikoen egoera.
Sortuk antolatuta.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 17

UHARTE ARAKIL Monika Arratibel ipuin kontalariaren eta Xabier Etxaniz marrazkilararen Laino txiki, egizu negar poliki emanaldia.
Gonbidapenak: udaletxean.
17:30ean, udaletxeko ganbaran.

LAKUNTZA EEEEEH! Ez gaude inoren zain. Bertsotrama eta Ibil Bedi taldeen kontzertuak.
Ernaik antolatuta.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda: Play arratsaldea.
18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Ion Barbarinen Transitos antzezlan.
8 euro.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 18

ALTSASU Musikarium familiarreko ikuskizuna.
4 euro.
17:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Basoko sekretuak ipuin kontaketa musikatua haurrendako ikuskizuna.
Aldez aurretik 3 euro, egunean bertan 3,5 euro.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Jorge Sanchez kantautorearen Trova Cubana kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Liburuaren astea. Haurrendako Voy a hacer un libro tailerra.
8-12 urte. Izena ematea: liburutegian.
17:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 20

UHARTE ARAKIL Sormen tailerra: Liburu bat egingo dugu.
10-12 urte. Izena ematea: euskara1@sakana-mank.eus.
Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
17:00etatik 18:30era, udaletxeko ganbaran.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Minari gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 16: 19:00
Igandea 18: 19:30

Los Estados Unidos contra Billie Holiday gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 22: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

El agente topo zineforum filmaren emanaldia
Igandea 18: 19:30

Dating Amber zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 22: 19:00

ASTEAZKENA 21


ALTSASU Euskarazko irakurketa kluba Karmele Jaioren Amaren eskuak liburuari buruz ariko da.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 22

ALTSASU Liburuaren astea. Haurrendako Liburu bat egingo dugu haurrendako tailerra.
8-12 urte. Izena ematea: liburutegian.
17:30ean, lortia kultur gunean.



ALTSASU Liburu eremua, eremu librea erakusketa.
Apirilaren 23ra arte. Asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna aurretik eta igandetan 18:30etik 19:30era, lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



OLAZTI Koskobiloko fosilen eta mineralen erakusketa.
Apirilaren 30era arte. Asteleheneetik ostiralera, 16:30tik 20:30era. Liburutegian.

ZORION AGURRAK



June Castro
Zorionak June!! laster 4 urte beteko ttuzu, ze neskatil koxxorra!! Guai lengusu Enekokin baakazu lagun bet geyo jolasteko. Muxu haundi bet poxpoliñ. Zuu famelikuek.



Eneko Galarza
Ongietorriye!! Marsuban 27yen jeyozaa kukuban hasierako kantakin batia. Ongietorri ta zorionsu izen! Muxu asko denon partes.



ESKELA




Ángel Ochoa Galarza

Une latz hauetan bat egiten dugu
famiaren saminarekin

Gure Pilota elkarteko lagunak

ESKELA



Ángel Ochoa Galarza

—Goian bego—

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Beti izango zara gure bihotzetan

Ebkekoak



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Administrari ofizial izateko lanpostua, aldi baterako kontratuarekin betetzeko lan polita: Etxarri Aranatzeko Udalak hautapen prozesu bat egingo du Ofizial administrari lan postua bat sortzeko etorkizunean aldi baterako kontratazioak egiteko, sortzen diren beharren arabera. Eskabideak aurkezteko epea (eskabide orria, NANA eta merezimenduak) 2021eko apirilaren 29an amaituko da, 14:00etan. Deialdiaren oinarriak udalaren webgunean kontsulta daitezke: www.etxarriaranatz.eus, udal-bulegotean, Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean <https://bon.navarra.es/es/anuncio/-texto/2021/77/15>.

Olaztik Udalaren deialdia: Lehen mailako igletsero ofiziala eta zerbitzu anitzetako bi peoi aldi baterako kontratzekeko prozesua martxan. Lanpostua osatuko da hautapen prozesua gainditzen duten izangaiekin. Izen emateko eskabideak Olaztik Udaletxean aurkeztu beharko dira apirilaren 26ko 14:00ak baino lehen, eskabide ofizial bidez. Informazio gehiago Altsasuko Lan Zerbitzuan (948 562 754 telefonoan) eta www.olazti.com webgunean.

Irurtzongo Pikuxar elkarreke taberna berri-rako sukaldari bila: Interesa baduzu bidali zure Cva pikutaberna@gmail.com.

com helbidera apirilaren 18a baino lehen. Astean 12 orduko lanaldia, txandaka. Beharrezkoak dira jarrera proaktiboa eta lanean autonomia edukitzea, bestalde, euskara jakitea eta sukaldaritzan esperientzia izatea baloratuko dira. Deialdia hutsik gera liteke hautagaiek esero diren baldintzak betetzen ez badituzte.

Altsasuko Udalaren aisialdiko begiraleen lan polita osatzeko hautaketa prozesua: Zerrendak bi urteko indaraldia izango du. Izena eman nahi baduzu, apirilaren 6tik apirilaren 23ko 14:00ak arte, udaletxean, posta-zerbitzuaren bidez edo Udalaren Egoitza elektronikoen bidez egin dezakezu. Informazio gehiago www.alsasu.net webgunean.

HIGIEZINAK

SALDU

Etxarri Aranatz, Enfermogurutze dermionan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

OHARRAK

Olaztik irakurle taldea: Siri Hustvedt-en *Todo cuanto amé* eleberraren inguruko solasaldia apirilaren 30ean, 20:00etan Olaztik liburutegian.

Odol emateak Altsasun: Apirilaren 20, 21 eta 22an 17:00etatik 20:30ra eta 23an 9:30tik 13:00etara, www.adona.es/eu helbidean informazio gehiago.

Bakaikuko ebteetarako egur lotak: Apirilaren 29a baino lehen izena eman behar da udaletxekeko postontzian papera utziz, udala@bakaiku.eus helbidera idatziz edo 948 562 509 telefonora deituz. Aurten ordainketa, lotea banatzeko orduan egingo da, lotearen prezioa 20 eurokoa da.

LEHIAKETA

Sakanako Gozamenez-film laburren lehiaketa: Apirilaren 28ra arte eman daiteke izena: Inxostia-punta@altsasu.net edo 608 617 778. Film laburrak apirilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. Maia-tzaren 5etik 10era gazteen bozketa egingen da, gogoko lana aukeratzeko. Eta sari banaketa maia-tzaren 14an izanen da. Informazio gehiago www.altsasu.eus webgunean. Sakanako Gozamenez eta Altsasuko Udala.

Euskal herriko ikastolen komiki lehiaketaren I. edizioa: Gaia Amaiurko gazteluaren setioa izango da, 14-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, bakarka edo taldekako lanak izan daitezke. PDF formatean aurkeztu behar dira. Lanak entregatzeko azken data apirilaren 30ean, 12:00etan, izango da. Informazio osagarria: <http://www.nafarroaonez.eus/nafrroa-oinetz.asp?IdSeccion=8&IdContenido=133> estekan edo ehikomikilehiaketa@kastola.eus helbidera idatziz.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Miran Bouajaja Rosillo**, martxoaren 29an Altsasun
- **Zuhaitz Plata Olea**, apirilaren 2an Bakaikun
- **Kima Arratibel Aramendi**, apirilaren 4an Etxarri Aranatz
- **Nour Hamdi Haddou**, apirilaren 7an Irurtzunen
- **Iman Iddrisu Adam**, apirilaren 10ean Altsasun

HERIOTZAK

- **Eloisa Galarza Galarza**, martxoaren 31n Urdiainen
- **Pablo Bengoetxea Lezea**, apirilaren 2an Altsasun
- **Simona Maria de la Concepcion Razkin Mozo**, apirilaren 4an Etxarri Aranatz
- **Maria Nieves Sarasola Razkin**, apirilaren 7an Irurtzunen
- **Dolores Corral Alcalá**, apirilaren 7an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA



Andres Lakuntza Urkia

I. urteurrena

Beti egongo zara gure bihotzetan

Zure familia

Arbizu



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Zabaleta, Elezkano, Altuna eta Mariezkurrena asteazkeneko material aukeraketan. Ez zen piloten inguruko kezarik egon. ASPE

Binakakoa: atzera ere zerotik hastera

PILOTA Binakako Txapelketako finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldia jokatu da asteburuan. Lau bikoek argi dute txapelketa hutsetik hasiko dutela eta lehen jardunaldia ongi astea oso garrantzitsua dela

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketa azken txanpan sartu da. Hasierako ligaxkako 14 jardunaldiren eta aurreko asteburuan jokatuak finalerdietako play-offen ondoren, asteburu honetan finalerdietako ligaxka hasiko da. Saillkatu diren lau bikoek hiru jardunaldi dituzte aurretik, tentsio handiko hiru asteburu.

Zabaletak ez du ezer aldatuko

Larunbatean Aspeko bi biko indartsuenak, Elezkano II.a-Zabaleta eta Altuna III.a-Mariezkurrena II.a, elkarren kontra ariko dira Labriten (17:15ean, ETB1). Asteazkenean aukeratu zituzten pilotak, eta zerotik hasiko direla azpimarratu zuten bi bikoek. Jose Jabier Zabaletak aitortu zuen "partida zaila" dutela aurretik. "Aurreko astean play-offetan partida oso gogorra aurrera atera zuen bikoaren kontra ariko gara. Animoz gainezka egongo dira. Gu orain arte aritu garen bezala jokatzeko saiatuko

gara, ez dugu ezer aldatuko. Larunbatean dugun partidaren jarri behar dugu burua. Lanketa psikologikoa da zailena, txapelketak 4 hilabete irauten dituelako. Orain arteko partida gehienetan ongi ikusi naiz, fisikoki eta eskuetatik ongi, eta ikusiko dugu finalerdietan zer moduz gauden. Espero dut larunbatean partida ona ateratzea" zioen Etxarrengo atzelariak.

Zabaletaren eta Mariezkurrenaren borroka gogorra espero da Labriten. "Play-offa gainditu izanak animo asko eman digu, baina biko onenaren kontra ariko gara. Jose eusten saiatuko gara, eta, ahal bada, dominatzea pasako gara. Jose gainontzeko atzelariak baino koska bat gogo dago, baina ni %100ean banga, eutsi ahal diot. Behin irabazi genien, eta ea berriro irabazterik dugun" nabarmendu zuen Mariezkurrenak.

Elezkano azaldu zuen "garrantzitsua une erabakigarria sasoi onean iristea" izaten

dela, eta larunbatean lau pilotariek "maila ona ematea" opa zuen. Altunak Elezkano eta Zabaleta "bikote latza, oso arriskutsua" direla adierazi zuen, baita gainontzekoak ere. "Hemen bikote guztiek jokatzeko dute eta guztiak dira zailak. Gu gure jokoa egiten saiatuko gara" nabarmendu zuen.

Ezkurdiak igandean du burua

Joseba Ezkurdiak aitortu du aurtengoa bere Binakakorik irregularrena ari dela izaten. "Finalerdietan egotea asko kostatu zaigu, ligaxka gorabeheratsua izan da gurea. Gaizki hasi ginen, hasieran ez genuen gure maila eman, gero partida onak jokatu genituen, baita maila kaxkarrekoak ere... Buruak lan

LIGAXKA ONGI HASTEAK FUNTSEZKOA DA, ETA BIKOEK EUREN JOKOAN KONFIANTZA OSOA DUTE

39. Irurtzungo Txapelketa

Irurtzun klubak antolatutako txapelketaren jardunaldi bikoitza jokatu da asteburuan, Labriten eta Irurtzunen

Ostiralean, Labriten, 17:30ean

- Aldaregia-Olatz Ruiz de Larramendi / Mendiburu-Salsamendi
- Mata-Azanza / Antso-Gil
- Armendariz-Cordon / Laso-Garatea

Larunbatean, Irurtzunen, 11:15ean

- Olaetxea-Aldabe / Ongay-Apezetxea
- Elizalde-Bergera / Iriarte-Alduntzin

asko izan du. Baina hitz eginez, entrenamenduetan asko hitz egin baitugu, konfiantza berreskuratu eta lehen helburua lortu genuen, play-offetara sailkatzea, eta gero bigarrena, finalerdietan egotea. Orain lasaiago nago, gusturago, finalerdietan gerra emateko prest" azaldu du aurrelari arbizuarrak.

Igandean Adarragan Peña II.aren eta Albisuren kontra duten partida zailan du burua Ezkurdiak (17:15ean, ETB1). Ez du harago pentsatu nahi. "Igandeko partida ahalik eta hobekien jokatzeko, hori da buruan dudana. Partida zaila dugu aurretik, baina polita. Ea partida borrokatua den eta irabazteko aukera dugun. Horretarako partida borobila egin beharko dugu, baina guk gurea egiten badugu aukerak baditugu, eta horretan pentsatu nahi dut bakarrik" berretsi du.

Jokoz eta txispaz hobeto dagoela dio arbizuarrak, eta bere buruarekin konfiantza gehiago duela. Hori da gakoa. Hitz hori nabarmentzen du ere Ladis Galzarak, konfiantza berreskuratu dutela. "Behetik gora egin dugu, eta horrela iristea onena da. Gogotsu eta indartsu gaude. Sasoi onean harrapatuko gaitu finalerdietako ligaxkak. Ondo hastea funtsezkoa da; ea ongi hasten garen" azaldu du Baraibarko atzelariak. Aurrean sasoi betean dauden Peña II.a eta Albisu izanen dituzte, eta tentsio handiko partida aurreikusten da.

1. MAILA AUTONOMIKOA

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Gares- Lagun Artea 2-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA
1 Erriberri 24
9 Lagun Artea 6

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN
16:45 Lagun Artea - Iruña (Zelai Berri)

Azken minutuan galdu

Hasieran Garesek dominatu zuen eta markagailuan aurreratzea lortu zuten. Lakuntzarrek ez zuten etsi eta 2. zatian bana berdindu zuten Lobok sartutako golari esker. Ongi aritu zen Lagun Artea, hainbat gol aukera izan zituen, baina partida berdinketarekin despidituko zela zirudienean azken minutuan Garesek garaipenaren gola sartu zuen. Hala ere, bide onean dago Lagun Artea.

ERREGIONALA GIZONAK

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Gazte Berriak 2-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA
1 Gazte Berriak 21
5 Altsasu 13

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAREN 24-25EKO ASTEBURUAN
Zehaztu gabe Liceo Monjardin - Altsasu

Altsasuk atsedean jardunaldia du

Dantzalekun jokatuak partida borrokatuan garaipen berezia bezain garrantzitsua lortu zuen Altsasuk. Lehen zatian bi taldeak pare pare ibili ziren eta aukera politak sortu zituzten. Javik Altsasu aurreratu zuen, baina 2. zatian Gazte Berriak liderak partidaren kontrola hartu eta bana berdintzea lortu zuen. Nabarmentzekoa da Altsasuko atezain Adur Kanpok kontrako bi penalti gelditu zituela, eta 76. minutuan Imanolek Altsasuren garaipenaren gola sartu zuela.

MENDIA Artzainen bizimodua ezagutzeko txangoa

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Naturanitzean Gozaten programaren barruan, apirilaren 25ean familia arteko mendi ibilaldia prestatu da, goizeko 10:00etan Dantzalekutik abiatuko den 3 orduko ibilaldia. Ibilbide gidatua da, eta apirilaren 21 baino lehen eman behar da izena (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).

Aralar taldeak oraina du, baita etorkizuna ere

TXIRRINDULARITZA Aurten 46 neska-mutiko trebatzen ari dira Sakana Group Aralar taldean eta oso pozik daude klubean, goiko taldeak sendotuta egoteaz gain, 12 haur hasi direlako promesetan eta horrek taldearen etorkizuna bermatzen duelako

Aurreko larunbatean Sakana Group Aralar taldeak 2021 denboraldiko aurkezpena egin zuen Arbizuko ekokanpinean. Aurten 46 neska-mutiko trebatuko dira, eta oso kontentu dago Alfonso Tadeo Ocaña presidentea. "Ez dakigu pandemiagatik ote den, baina aurten 6-7 urteko haurren booma izan dugu. Promesetan 12 haur ditugu, eta hori oso garrantzitsua da, beraiek taldearen etorkizuna direlako" azaldu zuen.

Trebatzea eta disfrutatzea

Neska-mutilak trebatzea eta txirrindularitzarekin goza dezatela, hori da klubaren helburua. Betiko helburua. "Izan ere, hori



Aralar taldeko gaztetxoak, argazki sesioaren zain, Arbizuko ekokanpinean.

da garrantzitsua, haurrek ongi pasa dezatela. Ilusioa badago, azkenean emaitzak iristen dira. Txirrindularitza kirol sakrifikatua da, eta aurrera egitea kosta egiten da; horregatik da horren garrantzitsua gaztetxoek disfrutatzea" gaineratu zuen Tadeok.

Jakina, taldeak aurrera egiteko garrantzitsua da txirrindularien familien inplikazioa. "Ezinbestekoa da. Bizikleta erosi, seme-alabak entrenamenduetara eta lasterketetara eraman, taldean lagundu... Familiak egiten duten ahalegina handia da, eta oso eskertuta gaude. Horrela aterako gara aurrera" azpimarratu zuen presidentek.

Klubarendako ezinbestekoa den babesleen laguntza bihotzez eskertu zuen Tadeok. "Urte zaila izan da, gaizki ari dira pasatzen, eta bihotzez eskertzen diegu guri ematen diguten babesa. Espero dezagun aurrerentzean ere gurekin jarraitzea, konfiantza hori dugu" azaldu zuen.

Txirrindulariak gogotsu

Azkeneko urteak urre kolorekoak izan dira Aralarrendako. "Etxeberria, Arrieta, Alberdi... halako

txirrindulariak ez dira bata bestearen atzetik sortzen, baina egoera guztietara moldatu beharra dago. Taldea bultzatu, hori da egin behar dena. Txirrindularitzan aritu nahi duten haurrek badaude, taldea beti aterako da aurrera. Aurtengo taldeek itxura ona dute. Jubenilak eta kadeteak talde indartsuak dira, gogotsu daude, eta ziurrenik nabarmenduko diren txirrindulariak izango ditugu" dio Tadeok.

Aire berriak

Alfonso Tadeo presidentearekin batera, Ibon Paularena presidenteordeak, Mariasun Erdozia idazkariak, Erika Ocaña diruzainak, eta Javier Etxarri, Alberto Martinez, Iban Gonzalez eta Manolo Gorriti bokalek osatzen dute junta. "Urte batzuk daramatzat presidente, eta uste dut beste ideia berriei lekua egin behar zaiela. Aldaketa beharrezkoa da, hori ona baita klubarendako" uste du presidentek.

Aralar Txirrindularitza Taldeak 5 lasterketa antolatuko ditu aurten: eskola mailako hiru proba, emakumezkoen bat eta kadeteen beste bat.

Aralar Txirrindulari Taldea 2021



Juniorrak (7): Jon Erdozia, Martzel Etxeberria, Aitor Ondarra, Alex Lopetegi, Aimar Tadeo, Unai Garro, Jon Kol Urrosolo. Entrenatzaileak: Odei Juango eta Jon Goikoetxea. **Kadeteak (9):** Manex Zufiaurre, Aritz Oiarbide, Anartz Garcia de Albeniz, Xabier Iregi, Adrian Martinez, Aritz São Roque, Gabriel Iurtia, Ion Lizarraga eta Alain Rosado. Entrenatzaileak: Alfonso Tadeo eta Miguel Ocaña. **Eskolak (30): Haurrak (8):** Oihan Gorriti, Ane Berastegi, Alain Razkin, Janitz Zufiaurre, Manex Huarte, Luca Martinez, Aimar Azanza eta Iker Martinez. Entrenatzaileak: Alberto Martinez eta Iban Gonzalez. **Kimuak (8):** Unax Etxeberria, Ekai Erdozia, Urko Oiarbide, Ion Unai Gonzalez, Adei Agirre, Xabier Gorriti, Egoi Marin eta Amara Arrieta. Entrenatzailea: Xabier Etxeberria. **Hasiberriak (2):** Maddi Martinez eta Lander Gorriti. Entrenatzailea: Xabier Etxeberria. **Promesak (12):** Ekaitz Paularena, Peio Otxagabia, Eki Begiristain, Unax Garziandia, Alain Gonzalez, Amaiur Razkin, Egoi Saralegi, Markel Reparaz, Aitz Berastegi, Aner Navarro, Anatz Arrieta eta Mikel Goikoetxea. Entrenatzailea: Ibon Paularena.



KOLABORATZAILEAK: TALLERES JUGA – MECANIZADOS IRURZUN – CONSTRUCCIONES LEGARBE – ARRIBICI – FLORISTERIA LOREA – DYA – LAKUNTZAKO UDALA – ARBIZUKO UDALA – ETXARRI ARANAZKO UDALA – IRURTZUNGO UDALA – UHARTE ARAKILGO UDALA – SAKANAKO MANKOMUNITATEA – BORDA ERRETEGIA – XALOK – ROTUGRAFIK – FUTSAL – ARALAR FERRETERIA – TRANSARREGUI – SUTEK – MONTAJES ELÉCTRICOS ERENTXUN



Amaia Erdozia Ansoren bizitzan egurra eta aizkora oso presente daude.

"Aizkora Etxarriri oso lotuta dago, eta historia txiki hori jaso dugu"

AMAIA ERDOZIA ANSO BIDEOEGILEA

AIZKORA Amaia Erdoziak eta Oscar Corrozak 'Aizkora, Antzinako bizimodu baten aztarna' dokumentala sortu dute, 'www.etxarrikoahotsak.com' webgunean ikusgai dagoena

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Larunbatean zen aurkeztekoa, Etxarri Aranazko Kultur Etxean, Amaia Erdoziak eta Oscar Corrozak sortutako *Aizkora, antzinako bizimodu baten aztarna* dokumentala. Pandemia dela eta, bertan behera geratu da emanaldia, baina dokumentala ikusgai dago Etxarri Aranazko Udalak ahozko ondarea biltzen duen *www.etxarrikoahotsak.com* webgunean. Erdoziak eta Corrozak Etxarri Aranatzeko aizkorak duen garrantzia pantailara eramanez dute.

Iaz Sakanako Mankomunitaterako ekoiztutako Sakanako Herri Kirolak izeneko bideoa aurkeztu zenuten. Hortik sortu zitzaizuen aizkora modu zabalagoan lantzeko gogo? Sakanako Aizkora Eskola gertutik ezagutzen dut. Familiakoek

"ANTZINAKO KIROL ETA OHITURAK EZ GALTZEKO LAN ORDAINEZINA EGITEN DU JENDE ASKOK"

gidatzen dute, Etxarri Aranatzeko. Oso proiektu berezia dela eta aizkoraren biziraupenerako guztiz beharrezkoa dela jabetu nintzen, eta Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitiari azaldu nion iruditzen zitzaidala hori nolabait bildu beharra zegoela. Eta hortik sortu zen iaz Mankomunitatean aurkeztu genduen bideoa. Baina Sakanan ez dago soilik Aizkora Eskola, beste bi herri kirol eskola daude: Sakanako Harri Jasotze Eskola, Irurtzunen eta Arbizun lantzen

den sokatira eskola. Bideoan hiru eskolak ezagutzera ematea erabaki genuen, baita Sakanan herri kirolean lantzen diren beste ekimen batzuk ere. Bideoa ikusgai dago Mank-eko webgunean (www.sakana-mank.eus), Kirolak ataleko Argazkiak eta Bideoak sekzioan. Bideoak niri eta nirekin lan egiten duen Oscar Corrozari aizkora munduan gehiago sakontzeko gogo eman zigun. Aizkora Etxarri Aranatzeko oso lotuta dago, eta Etxarriko historia txikitxo hori bideo batean gordetzea polita izango zela iruditu zitzaigun. Horrela, Etxarri Aranazko udalera jo genuen planteamendua egitera, interesgarria iruditu zitzaie eta dokumentala sortzen hasi ginen.

Familia aipatu duzu. Izan ere zue-na, erdoziatarrena, aizkolariz josia dago, eta horrek pisua izango du. Bai, horrek tiratzen du. Familian aizkolaria egon dira beti. Hasi Ignacio aitona, gero Juanito osaba, Juanjo lehengusua, nire anaia, aita ere Aizkora Eskolan ibiltzen da... Nahiz eta txikitan mundu hau gehiegi ere ez interesatu, beti gertu ikusi izan dudan mundua izan da, eta konturatzeko zara zein mundu hauskorra den, desagertzeko zorian zegoena. Hain zuzen ere horregatik sortu zen, bere garaian, Sakanako Aizkora Eskola. Hasieran nazabaldarrak eta Axio Flores hasi ziren, eta gero familiakoek hartu zuten ardura. Antzinako ohitura eta kirol hauek ez galtzeko egin behar den lanak zein nolako garrantzia duen konturatu nintzen orduan. Eta horregatik sortu zen bideoak egiteko nahi hori.

Jende askok sekulako lana egiten du gure herri kirolak mantendu eta berreskuratzeko.

Bai, urteekin joaten zara perspektiba hori garatzen, konturatzeko zara zenbateko lana egiten duten herri kirolak eta kasu honetan aizkora aurrera ateratzeko, nolako lotura duten lehenengo bizimoldeekin, pila bat aldatu diren bizimoldeekin. Lehen gure gizarteak nolako lotura zeukan gure inguruarekin, basoarekin, lotura hori nola galtzen joan

"AIZKORAK PAGOAREN USAIN FRESKOA DU, HAURTZAROAREKIN LOTZEN NAUENA"

den... Eta hortik abiatuta konturatzeko zara badagoela hor jende bat, bere borondate onez sekulako lana egiten duena, ohi-turei eusteko. Bestela, hori guztia desagertuko da. Batzuei tokatu zaigu mundu hori zeharbiz dez pixka bat ezagutzeko, baina gehiengoak ia galduta dauka perspektiba hori. Eta jabetzen zara halako gauzak zaindu eta baloreari jarri behar direla; garrantzia eman behar diegu.

Iaz Sakanako Mankomunitaterako herri kirolen bideoa aurkeztu zenutenean azaldu zenuten bideoarekin nolabaiteko errekonozimendua egin nahi zenietela herri kirolak sustatzeko bere borondatez lan ordainezina egiten duten guztiei. Aizkoraren bideo honekin baita ere?

Bai. Aizkora da bideoaren gaia, edo behar bada arrazoia. Baina aizkora, izate baten, bizimodu baten eta beste hainbat gauzaren erakusgarria ere bada. Sakanako Aizkora Eskola, antolatzen diren beste hainbat gauza bezala, ez zen posible izango auzolanik gabe. Borondate onarekin eta ezer ez jasotzeko intenziorik gabe -ez bada nolabaiteko ilusioa edo poztasuna jasotzea-, ordu pila bat eta lan pila bat jartzen duen jende horrek auzolana egiten du, eta horrek gure kulturarekin lotura du. Gure herrietan auzolanak egiteko ohitura berezkoa dugu. Kuriosoa da niretzat, garrantzia emango nioke, bai honi eta baita jendeak basoarekin izan duen loturari. Horrek zerkusi handia du gure eremuaren izaera komunalarekin. Izan ere, hainbat eta hainbat belaunaldik basoan egin zuten lan, handik bizi ziren. Guztiak, azkenean, multzo bat osatzen du, eta gauza horiek guztiek guk bizi izan dugun gizartea eta sortu dugun kultura osatu dute.

Dokumentalean aizkoran ibili diren etxarriarrak dira protagonista. Nola planteatu duzue ikusentzunezkoa?

Hasieran pentsatzen genuenetik bukaeran sortu dugunera arte, lana forma hartzen joan da. Etxarri Aranatzeko aizkolaritzak historikoki garrantzia izan du, eta Sakanako Aizkora Eskola ere baloreari jarri nahi genuen. Horrela, elkarrizketak egin zaizkion Juan Mari eta Floren Nazabali, Juanito eta Miguel Angel Erdoziari, Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen diren gazteei... baina guztia lotzen duen kontakizun txiki bat ere badago, non lamia batzuk batzuen eta besteen azal-

penak lotzen dituzten. Kontakizunean Etxarriko gizartearen basoak zenbateko garrantzia izan duen azaltzen da eta nola hortik aizkolariak sortu ziren. Berezitasuna da kontakizun hori etxarrieraz dela, baina nahiko galduta dagoen nesken arteko noketan. Bi lamien arteko elkarriketa noketan da. Horretarako laguntza jaso dugu. Bideo hau, aipatu dugun auzolanen filosofiari jarraiki, ez litzateke posible izango jende pila baten laguntzarik gabe: testuak idazteko orduan, euskara hori zuzenki jasotzen, aizkolari guztien laguntza... Horrela egiten ditugu gauzak hemen: edo denak inplikatzeko gara, edo ez da ezer ateratzen.

Noiz grabatu zenuten?

2019ko udazkenean hasi ginen ideari bueltak ematen, baina gero pandemia iritsi zen, eta lana aurreratzea kostatu zizaitza. 2020ko udazken aldera bukatu genuen. Dokumentalak 25 minutuko iraupena du, eta elkarrizketak toki ezberdinetan egin dira: erdoziatarren bordan, etxeetan, San Adrianen, basoan...

Protagonistek bideoa ikusi dute? Zer iruditu zaie?

Baietz uste dut, bideoa *www.etxarrikoahotsak.com* webgunean zintzilik dagoelako. Ez dut oraindik iritzi askorik jaso, baina uste dut gustatuko zitzaizela, lan polit bat egiten saiatu garelako.

Eta zuri? Dokumentalarekin konforme geratu zara?

Ez naiz guztiz konforme geratu (kar, kar...). Proiektuari gogo guztia jartzen diozu, gauza batzuk nahi zenuen bezala ateratzen zaizkizu, beste batzuk ez... Azkenean dituzun gaitasunei moldatu beharra duzu, gaitasun teknikoari, pertsonalei, gidoia dela edo bestea dela, eta bukatzen duzunean pentsatzen duzu: "orain gauza hauek beste modu batetara egiten nituzke". Badauzka hobetu egin ahal ziren gauzak. Esaterako, iruditzen zait protagonista gehiago sartu behar zirela bideoan, Etxarriko aizkora ibiltzen den jende gehiago dagoelako, baina lan ahalik eta politena egiten saiatu gara.

Hemendik aurrera zein asmo dituzue? Zein unetan zaudete?

Une honetan ez dugu proiektu berezirik, gogoia bai, berriro ere halako gauzetan murgiltzeko. Gu ez gara honetan profesional-

ki aritzen. Gure afizioa da, beti proiektu interesgarrietan sartzeko prest gaude. Iaz egindako bi bideo hauekin lortutako diru pusketa bat materialean inbertitu dugu, beraz, aurrera jarraitzeko asmoz. Zerbait sortuko da.

Hortaz, pasioz egiten dituzue ikusentzunezkoak, ez da zuen lanbidea.

Bai. Beharbada ez zara horren profesionala izango, baina zaletasuna duzunean gusturago egiten dira halakoak. Lanbidea bada, lanak beti dauzka betebeharrak batzuk, eta agian horrek gehiago lotzen zaitu. Aitortu beharra dut nik bakarrik ez nuela egingo, baina Oscarrekin oso gustura ibiltzen gara halako saltsatan. Bien artean errazagoa da.

Zer da zuretzat aizkora?

Aizkorak niretzat badauka zati oso pertsonal bat. Txikitari familiakoei ikusitako jarduerak bat da aizkora, garrantzitsua. Osabak

"AIZKORA GARAI BATEKO BIZIMODUARI OSO LOTUTA DAGO; SAKANAN JENDEA BASOAZ BIZI ZEN"

aizkora apustua zuenean miresten puntu batekin ikusten zenuen. Aizkorak badauka usain berezi bat; usain baten oroitzapena ekartzen dit beti, egurrena, pagoaren egur eta ezpalen usain fresko hori, eta usain horrek nire haurtzaroarekin eta familiarekin lotzen nau. Eta pixka bat harago joanez, aizkora historiarekin lotzen dut, baina historia txikiarekin, herri xehearen bizimoduarekin. Garai batean nola biziko ziren basoan, zein gogorra izango zen. Orain basora egurra egitera joaterakoan, motozerrak, traktoreak... denetarik dago. Baina pentsa ezazu lehen nola ibiliko ziren trontzarekin eta aizkorarekin lanean, gurdiekin, idiekin... Han ibili behar zen gero, bizimodu bat zen, bizimodu gogorra. Sakanan jendea hortaz bizi zen. Gero etxean soro pixka batzuk etaazienda zegoen, baina basoa zen oinarria. **Maria Floresek bikain jaso zuen hori guztia Basogintza Sakanan lanean. Orduko bizimodua zen, zalantzarik gabe.**

Bai, gure historia izan da. Ez da gerra historia bat, baina bailara honetako historia izan da.

Sakanako Aizkora Eskola maiatzean hasiko da, izena ematea zabaldu berri du Mankomunitateak. Eskola martxan egoteak pozten zaitu?

Izugarri. Osaba, aita eta irakasle egon diren guztiak haur eta gazte horiek aizkora eskuan dutela ikustean zein kontentu jartzen diren ikusteak pozten nau. Zein polita den eskolako entrenamendu bat ikustea, dozena bat gazte bakoitza bere aizkorarekin enbor gainean... ikusgarria. Sakanako Aizkora Eskolak aizkora sustatzeko egiten duen lana oso garrantzitsua da. Mundu honetan aritzeko laguntza behar da, birtartekoak behar direlako, lana besak, entrenatzeko tokia, egurra eta abar. Beraz, hasteko aukera bikaina eskaintzen du eskolak. Nire ustez hemendik aurrera ezinbestekoak izango dira halako herri kirol eskolak, gure kirolak galdu nahi ez baditugu behintzat.

Zuen etxean aizkorak etorkizun al dauka?

Semea, lehengusuen semeak... hor ibiltzen dira. Txikitari bai, baina ez dakit handitzerakoan zer egingo duten. Akaso norbait aterako da!

Sakanako Aizkora Eskola prest

Maiatzaren 4tik ekainaren 29ra bitartean aizkora trebatuko dira Sakanako Aizkora Eskolan izena ematen duten neska-mutikoak. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen du ekimena, aizkora sustatzeko asmoz. Azken urteetan bezala, Juanito, Migel Angel eta Juanjo Erdoziak gidatuko dute eskola, euren bordan, Etxarri Aranatzan. Asteartean eta ostiraletan ariko dira lanean, 19:30etik 20:30era.

Izena ematea zabalik

Sakanako Aizkora Eskolan izena ematea zabalik dago, apirilaren 29ra arte, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo *kirolak@sakana-mank.eus*). Prezioa 55 eurokoa da. 10 eta 22 urte arteko gazteek eman dezakete izena, eta tokia egonez gero helduagoak onartuko dira. Kontua da aruten 12 ikasleren muga dutela. "Normalean jende gehiagok ematen du izena, eta toki muga dagoenez, horregatik erabaki dugu apirilaren 29ra arte izena ematea zabalik izan, eta gero izena ematen duten guztien artean 12 toki horiek zozketatzea" azaldu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Sakanako Aizkora Eskolarekin aizkora sustatu nahi da, aizkora trebatzeko materiala eta azpiegiturak behar baitira, guztien esku ez daudenak: egurra, aizkorak, egurrak kontserbatzeko bordak, entrenatzeko tokia... Horretaz gain, materiala prestatzeko laguntza behar da, eta aizkoraz dakien irakasle bat. Sakanako Aizkora Eskolak hori guztia eskaintzen du.

Sakanako Aizkora Eskola Axio Flores zenak eta Mank-eko Kirol Zerbitzuak jarri zuten martxan. Juan Mari eta Floren Nazabal izan ziren lehen irakasleak, Axioarekin batera, eta nazabaldarren bordan aritzen ziren lanean. Urte batzuen buruan, erdoziatarrek hartu zuen eskolaren ardura.

Txikiak ikusteak sortzen dien poza

Aurreko urtean 18 gaztetxo trebatu ziren eskolan. Erdoziatarrek argi dute trebe diren bitartean Aizkora Eskolan jarraituko dutela. "Kirola egitea oso garrantzitsua da, oinarrikoa, eta guk aizkorarekiko sekulako zaletasuna dugula kontuan hartuta, haur txiki bat moztan ikustean

HAUR TXIKI BAT MOZTEN IKUSTEAK EMATEN DIDAN POZAK EZ DU PREZIORIK" JUANITO ERDOZIA



Sakanako Aizkora Eskolan aizkolariak trebatzen, erdoziatarrekin. DOKUMENTALETIK HARTUTAKO IRUDIA

horrek ematen didan pozak ez du preziorik. 20 urte bete bitartean kirolean badabilta, hori bide ezin hobea da pertsona egiteko" nabarmendu zuen Juanito Erdoziak iaz *Sakanako Herri Kirolak* bideoaren aurkezpena egin zenean.

Eskolak prestatzeko mugimendu handia izaten da erdoziatarren bordan. Gazteak entrenatzen eta ebakitzen ordu bana aritzen dira asteartean eta ostiraletan, baina materiala prestatzeko lan handia egiten dute aurretik Juanitok, Miguel Angelek eta Juanjok. "Ebakitzen ordu bat aritzen gara, baina aurretik prestatuta lan handia dago. Nafarroako Gobernuak

Aizkora Eskolari 20 enbor ematen dizkigu urtero, baina horiek bota eta bidera atera behar dira, traktorearekin. Hori guk egiten dugu, Manolo Gorritirekin. Gero Mankomunitateak bidalitako kamioi batek jaisten ditu bordara. Han, egurra ongi mantendu behar da, heze. Horretarako belarra jartzen diegu gainean, eta ureztatuz. Eta, klase bezperan egurrak atera, balio duena utzi, besta kendu, enborrak prestatu, txafianak egin, josi eta borda barrura sartu. Horrela ibiltzen gara" gaineratu zuen Juanitok. Aurten ere, martxan dira, maiatzaren 4rako guztia prest izateko.

33. Burunda Trofeoa larunbatean Altsasun

TXIRRINDULARITZA Kadeteen lasterketa arratsaldeko 16:00etan abiatuko lortia plazatik. Azken astea oparoa izan da sakandarrendako. Etxeberria ongi dabil Turkian, Arrieta bigarren izan zen Balentziagan eta Iraitz Goñi Nafarroako master 40 txapelduna da

Orain arte juniorren mailako bi lasterketa jokatu dira Altsasun, baina larunbatean kadeteen txanda izango da. Izan ere, 33. Burunda Txirrindulari Elkarte Trofeoa jokatu da larunbatean, 16:00etan, Iortia plazatik abiatuko dena. 51 kilometroko lasterketa da, Altamirako igoera bat tartean duena.

Bestalde, igandean III. Rober Innova Trofeoa jokatu zen Lizarran, aldi berean Nafarroako Junior mailako Txapelketa izan zena, 97 kilometroko lasterketa gogor eta zorrotza. Esprintean, Donosti Berrri taldeko Yago Agirre gailendu zitzaion Galdakau-toko Galder Bengoetxeari. Quesos Albeniz Burunda taldeko

Hugo Aznar 6. sartu zen, bere taldekide Sergio Lopez 7. eta Mikel Uncilla 9. Top Tenean. Quesos Albeniz izan zen talde onena.

Jon Erdozia (Sakana Group) 13. sailkatu zen, Unai Garro (Sakana Group) 16., Oihan Etxeberria (Q. Albeniz) 46., Xabier Borrega (Q. Albeniz) 47. eta Ander Villalobos (Q. Albeniz) 61.

Asteko protagonistak



2. etapako protagonistetako bat izan zen Josu. RURAL KUTXA

Josu Etxeberria ongi Turkian Aurten profesionaletan debutatu duen iturmendiarra Turkiako Itzuliko 2. etapako ihesaldian sartu zen.



Goñi gainontzeko txapeldunekin. NAFARROAKO FEDERAZIOA

Iraitz Goñi txapelduna Zarrakazteluko lasterketan 3. sailkatu zen arbizuarra, Nafarroako Master 40 Txapelketan lehena



Arrietak eraso jo zuen Balentziagan. LIZARTE

Igor Arrieta bigarren Balentziagan Lizarran eta Zornotzan hirugarren izan eta gero, igandean bigarren izan zen, sekulako erakustaldia emanez.



Masen alde lan egingo du Erbitik. MOVISTAR TEAM

Imanol Erbiti Valentzian Valentziako Vueltan murgilduta dabil Hiriberriko txirrindularia. Enric Mas liderra babestea izango da bere lana.

Osasuna Magnak 1. mailako kategoria ziurtatu nahi du

ARETO FUTBOLA Talde berdeak larunbatean sailkapenean bigarrena den Palma Futsal du aurkari

Asteburuan 1. mailako Areto Futboleko Ligako 27. jardunaldia jokatu da. Osasuna Magna Xotak Palmako Mallorcan jokatu du, sailkapenean 2. postuan dagoen Palma Futsal (52 puntu) taldearen kontra, 12:00etan Palau Son Moixen (LaLigaSports TV, IB3). Puntuak zakuan pilotatzea, hori da talde berdearen helburua. Egun sailkapenean 10. postuan dago Osasuna Magna (32 puntu), eta kategoriari eusteko beharrezko puntuak lortu nahi ditu

Osasuna Magna Xotako kapitain Roberto Martilek argi eta garbi adierazi du zein den helburu nagusia. "Aurtengoa denboraldi zaila ari da izaten, eta helburu nagusia lehenbailehen kategoria ziurtatzea da, 1. mailan jarraitzea ahal bezain pronto lotzea. Xota gara, beti gehiago nahi izaten dugu, baina gero etorriko dira gerokoak. Lehendabizi, kategoria ziurtatu nahi dugu" azaldu du kapitain irurtzundarrak.

Martilen eta Jesusen baja

Horretarako, jakina, puntuatu beharrean daude. Partida zaila dute ligan bigarrena den Palma Futsalaren kontra, baina gogotsu daude Imanol Arregiren mutirik.

Roberto Martil baja izanen da, ezker hankako bikian arazoak dituelako. Baita Jesus ere, bihurtua baitu, baina berdeek ahalik eta hobekien jokatzeko, arerioa estutzea eta puntutxoren bat ekartzea ez dute baztertzeko.

Beste helburuak

Kategoria lortu eta gero, ligako titulua erabakitzekeko play-off postuetan sailkatzea litzateke taldearen bigarren xedea. Lehen 8 postuetan sailkatzen diren taldeek jokatzeko dituzte play-offak, eta talde irurtzundarra postu horietatik 4 puntura dago. Beraz, aukera badago. "Jardunaldi zailak ditugu aurretik, arerio zuzenen arteko batzuk tartean, eta ez da erraza izango. Denboraldi arraroa ari da izaten, zaila. Goko postuetara gerturatzea kostatzen ari zaigu, ezin dugu azpiko postuetatik guztiz aldentu. Garrantzitsuenak kategoria salbatzea da, baina ez ditugu beste helburu politak alde batera utzi nahi. Partida asko ditugu etxean, eta ea zaleen babesarekin puntuak lortu eta gora igotzeko aukera dugun. Play-offak jokatzeko sailkatu ahal bagenu..." gaineratu du Martilek.



OSASUNA FUNDAZIOA

Osasunaren campusa

FUTBOLA Osasuna Fundazioaren Aste Santuko futbol campusetako bat Lakuntzako Zelai Berrik hartu zuen. 46 neska-mutiko trebatu ziren futboleko, Jon Otano, Asier Arregi, Iker Narvaez eta Gorka Paskua monitorean esanetara. Ongi pasatu zuten, eta Osasunaren jertse gorria eta diploma jaso zituzten opari.

"Kontatzearen momentua bera magikoa da"

IZASKUN MUJIK A MUJIK A AKTOREA ETA IPUIN KONTALARIA

Antzerkiaren eta ipuinen munduen artean murgiltzen da Ihabarren bizi den Izaskun Mujika Mujika. Ipuin kontaketa biak uztartzen ditu, bi kode izan arren, biak uztartzen ditu

Erkuden Ruiz Barroso IHABAR

Arte dramatikoa ikasten ari zela ipuin kontaketa lehenengo urratsak eman zituen, eta orain guztiz "harrapatuta" dago. Ipuinak kontatzeko orduan antzerkia eta narratzailearen papera uztartzen ditu, bere estiloa "oso antzeztua" baita. Ipuina beti oinarri hartuta. Giro magikoak sortzen ditu.

Zer da ipuin kontalari bat?

Ipuin kontalaria edo narratzailea ere esaten da. Modu askotan esaten da. Ni haurren publikora zuzentzen naiz, gehien bat. Helduentzako ipuinak ere kontatu izan ditut, baina gutxiago. Ipuin sorta bat ahoz kotasunez lantzea da. Ahoz aho edo ahoz belarrira kontatzea. Batzuetan liburuak eraman izan ohi ditut ilustrazioak erakusteko, gaur egun oso ohituta daudelako irudiak ikustera; mugimenduan, gainera. Azken finean, gizakiak bizitza osoan egin izan duena egiten dugu: ahoz kotasuna, istorioak, herrien kondairak, tradizioak, mitoak eta abar kontatzea. Lehen ez zen lanbide, eta egun ogibide bihurtu dugu.

Zeintzuk dira aktoreen eta ipuin kontalarien desberdintasunak?

Mota askotako ipuin kontalariak daude. Aberasgarria da. Badago eserita kontatzen dituen, moztrotuta, musikarekin lagunduta, objektua erabiltzen dituen... Antzerkiaren mundutik nator. Arte dramatikoa ikasketak egin nituen, aktorea izatea zen nire helburua eta aktore naiz; bi ekin-tzak uztartzen ditut. Baina ipuinak nire bizitzan sartu ziren. Ikasten ari nintzenean ipuinak



Izaskun Mujika Mujika aktorea eta ipuin kontalaria.

nola kontatzen diren tailer bat egitea proposatu zidaten, eta pixkanaka, pentsatu gabe, mundu horretan sartu nintzen. Baina ez dauka zertan loturik egon. Narratzaile askok esango dute aktoreek beti gurera eramaten dugula eta kontakizuna beste gauza bat dela... Nire kasuan bai erlaziozko dudala: kontatzeko modua oso antzeztua delako. Baina ez naiz antzerkia egiten ari, beste kode batean nago.

Nolakoak izan ziren hastapenak?

Nire lehenengo ipuin saioan Bremengo musikariak ipuina kontatu nuen. Ez nuela sekula horrelako zerbait inoiz gehiago egingo esan nuen. Oso gaizki pasa nuen. Oso saio txarra izan zen. Denborarekin ekintza oso gaizki prestatuta zegoela ikusi nuen. Saioak ezinbesteko bete-behar batzuk dituela konturatu zara. Gainera, guraso bat etorri zitzaidan bi alabekin, aita emoziozko zegoela, eta esan zidan honetan jarraitu behar nuela. Alde batetik, leher eginda bukatu nuen, eta beste alde batetik, aukera bat emango niola pentsatu nuen. Saioak hobetzen joan ziren. Agian ikasteko asko zegoelako. Niretzako bi arloak konektatuta daude, eta batean ikasten dudana bestera eramaten dut. Ez dakit oso ongi nola, baina harrapatuta bukatu nuen.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Zuzeneko momentu hori, eta inprobisazioa. Ipuin sorta bat prestatu dugu, baina inoiz ez dakizu zer gertatuko den. Antzerkia ere bizia da eta gertatzen dena hor gertatzen ari da; ez dago bi saio berdinek. Baina ipuinekin are gehiago. Nire kasuan behintzat hori sentitzen dut. Haurrak oso gertu daude, edozein momentuan hitz egiten dute, zurekin parte hartzen dute, ipuina moztuten dute... Erlazioa biziagoa da. Hasieran gogorra da, lehoien

aurrean sentitzen nintzen batzuetan. Babesik gabe. Mila gauza gertatu zaizkit. Hori ere eramaten ikasi behar duzu. Orain, gustatzen zait.

Publikoa exijentea da.

Bai. Familia arloan egiten den zerbait da, berreskuratu dena. Gure garaian gure gurasoek ez zuten denborarik ipuinak kontatzeko. Aiton-amonek beste modu batera kontatzen zituzten istorio zaharrak. Baina gaur egun gurasoak oso kontzientziatuta daude. Eta ogibide bihurtu da, ez da moda bat izan. Haurrak ohitzen dira, ekintza maiz egiten den lekuetan pila bat nabaritzen da, eta gustura joaten dira. Beharrezko lana da: bai ipuin kontalariak bai antzerkia bai pantailatetik ateratzen dituen edozein kultur ekimen. Teknologia oso ongi dago, baina saiatu behar dugu haurrak harapatuta ez gelditze.

Zer onura izan ditzake ipuin kontalarien saioek?

Hasteko, pazientzia: eserita egon behar du eta prozesu horretan sartu behar du. Marraski bizidunak ikusten dituztenean dena oso azkar pasatzen da. Estimulua igotzen da. Tarteka saioetan gehienez liburu bat erakusten diet irudiekin. Irudi geldiak dira, eta zuk egin behar duzu mugimendua zure buruarekin; zuk irudikatu behar duzu guztia. Irudimena, ulermena, emozioen lanketa... Narrazio tailerretan gurasoek galdetzen ohi dute nola kontatu, eta ipuinak maite zaituen pertsonak kontatzen ditu. Momentu hori bera magikoa da. Pertsona bat etorri da niri istorio bat kontatzera. Onura afektiboak ditu. Batzuetan behin eta berririo ipuin berbera kontatzea eskatzen dute protagonistari gertatzen zaiona sentitzen dutelako, eta korapiloak askatzeko laguntzen die.

Saioak normalean liburutegietan egiten dira. Zer da liburutegi bat zuretzat?

Leku magikoak dira. Antzerkian hasi nintzenean, eta horrekin ere lotzen dut, antzerkia irakurtzeko irrika bezala sortu zitzaidan. Liburutegira joaten nintzen. Liburuz betetako toki bat zoragarria iruditu zitzaidan. Agian ordura arte ez nuelako espazio hori ezagutuko. Orduetik liburutegira joaten naiz eta denbora konturatu gabe pasatzen zait. Unibertso asko daude leku bereberetan. Espazio bat non irudimena bertan dagoen. Orduan, ipuin saioak bertan egitean are gehiago.

"LIBURUTEGIAK LEKU MAGIKOAK DIRA; UNIBERTSO ASKO DAUDE LEKU BATEAN"

"GIZAKIAK BIZITZA OSOAN EGIN DUENA EGITEN DUGU: ISTORIOAK, KONDAIRAK ETA ABAR KONTATU"



Miren Amuriza Plaza bertsolaria eta Askoa Etxebarrieta Lasheras 'bailaora' 'Gorria' ikuskizunean. UTZITAKOIA

Herri kulturaren erraietatik

Askoa Etxebarrieta Lasheras 'bailaora' da eta Miren Amuriza Plaza bertsolaria. Hasiera batean hain desberdin diruditen bi diziplina elkartu dituzte 'Gorria' "esperimentuan" edo "elkarrizketa" artistikoan

Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA Duela hiru edo lau urte Askoa Etxebarrieta Lasheras La Pulga flamenko dantzari gasteiztarrak Berrizko festetan ikuskizun bat egin zuen. Bertan Miren Amuriza Plaza bertsolariak emanaldia ikusi, eta "flipatu" zuen. Amurizak elkarrekin "zerbait egiteko" eskatu zion, "proposamen zehatzik" egin gabe. Bi diziplinakin "esperimentatzen eta jolasten" hasi ziren, eta *Gorria* ikuskizuna sortu zuten. *Gorria* ez da flamenkoaren eta bertsolaritzaren fusio ikuskizun bat. *Gorria bailaoraren* eta bertsolariaren artean egiten den elkarrizketa bat da, bakoitza bere esparrutik. Bihotzera iristen den ikuskizuna da, sortzaileen hitzetan. Apirilaren 24an, larunbata, 19:00etan, Olaztikokultur etxean emanaldia eskainiko dute.

"Ez naiz flamenkoan aditua, baina iruditzen zait asko transmititzen duen arte bat dela". Amurizari *La Pulga* flamenko ikuskizunetik gehien erakarri ziona "bere energiak eta adierazkortasuna" izan ziren, "bere bulkada hori kontrastatzen duela gure oholtzan egoteko moduarekin; gu oso zurrinak gara, burutik aritzen gara". Flamenkoan indarrarekin mugitzen direla iruditu zitzaion Amurizari, "aur-

pegiarekin ere transmititzen zuen". Beste kode batean hainbeste esatea "oso erakargarria" iruditu zitzaion.

Flamenkoa "basatia eta oso pasiozkoa" dela esan du Etxebarrietak; emozio asko daude. Bere bizitzako "pasioa" da. Gasteiztarrak izan arren, flamenkoaren zaletasuna konpasa edo palma ikastaro batean sartu zitzaion, pertsona bat erdira dantzatzera ateratzen, "flamenko parrandetan bezala". Korrilloan sortzen den energia horrekin busti zen, eta flamenkoa dantzatu nahi bazuen Granadara joan behar zuela pentsatu zuen. "Betidanik egin dut dantza: balleta egiten nuen eta garaikidea egin izan dut. Dantzarekin lan egitea gustatzen zait ere". Perkusio zalea ere bada, eta flamenkoak ere hori eskaintzen dio: "Erritmoa, konpasa, oso garrantzitsua da. Oinekin egiten diren jokuak ere erritmoak dira". Oinen jokoak, soniketeak, erritmo aldaketak eta abar izan ziren erakarri zituen lehenengo ele-

BI ARTISTEN ARTEKO ELKARRIZKETA BAT EMATEN DA, BAKOITZAK BERE DIZIPLINATIK

mentuak. Los Chunguitos eta Los Chichos rumbalarien zalea ere bada.

Herri kultura

Sortzen hasi aurretik deseraiakiz prozesua egin behar izan zuten. Amuriza: "Besteak zer egiten zuen ulertu behar izan genuen lehendabizi. Nik neukan *bailaoraren* irudi bat eta berak bertsolariaren irudi bat aurreiritzi askorekin; kanpotik eduki daitekeen irudia". Bertsolaritza euskal ahozko literaturatik dator, flamenkoa oinarria Andaluzian duen dantza bat. Baina espresio "oso desberdinak" izan arren, biak herri kulturatik eta inprobisaziotik datoz, eta "elementu komunak" dituzte, Etxebarrietak azaldu bezala: "Azkenean ez dira hain desberdinak. Bertsoetako koplak eta doinu batzuk flamenkoaren estrukturan antzekoak dira".

Gorria ikuskizuna esperimendu bat bezala deskribatzen dute. "Gure asmoa ez zen fusioa egitea, baizik eta munduan gertatzen ari diren gauzen inguruan daukagun emozioak eta sentipenak bakoitzak bere diziplinaren bitartez adierazi". Bien arteko elkarrizketa bat ematen da. Letra "indartsuek" flamenkoaren indarrarekin bat egiten egiten dute,

eta alderantziz. "Energiak eta emozioak transmititzen du, bihotzetara iristen da", gaineratu du Etxebarrietak.

Erraietatik egindako lan bat da, "oholtzan egoteko bi modu oso desberdinekin transmititzera iristen gara". Oinarrian biek egiten dutenarekiko "griña eta pasio handia" dagoela esan du Amurizak. Bertsolariaren kasuan, inprobisazioa alde batera utzi behar izan du, eta testuak ikasi behar izan ditu. "Hasiera batean hobe izango zela uste nuen, baina beste gauza batzuk ikasi behar izan ditut". Musikaren eta *bailaoraren* erritmoa jarraituz kantatzen ikasi behar izan du ere. "Ni ez naiz *kantaora* ezta gutxiago ere, baina doinua jarraitu behar dut askotan". Ikuskizunean dena dago neurtuta: argiteriak ere gauzak kontaktatzen ditu, jan-

tziteria flamenkoa da "baina ez da flamenkoa" eta abar.

Edozer gauza bezala flamenkoa zein bertsolaritza praktika kontua dela esan dute bi artistek. "Erraztasun handiagoko edo txikiagoko izan dezakezu, baina edonork ikasi dezake bertsotan". Talentu kontua da flamenkoan ere. "Flamenkoan oso garrantzitsua da erritmoa jarraitzea, abeslaria entzutea eta jarraitzea". Bi diziplinak, aldiz, saioak prestatzeko modu desberdinak direla azaldu du Amurizak: "Bertsolariak saioa hasi baino ordu erdi lehenago joatearekin nahikoa da, baina Askoak aurretik berotzen du, prestatzen da... Guk beste modu batera egiten dugu; astean zehar egunerokotasuna jarraituz". Hala ere, bietan "orduak" sartzea ezinbestekoa da.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Ergoienako jentilak

Ollideko jentila burumakur doa arbasoen aldarera daraman bidezkatik, bizkarrean esnez beteriko ontzi astun bat duela. Alabak atzetik jarraitzen dio, eskuan lore batzuk ditu eta begirada triste. Ama hil da, eta lautada honetan, itsas mailatik 1000 metrora baino gehiagora, haizeak jotzen du errukigabe eta elorriak orratzak bezala sartzen dira haien oin biluzietan, hemengo harri zorrotzen etzetara ohitua. Harkaitzetatik orkatz talde batek bi jentilen mugimenduak zelatatzen ditu.

Bidean, neskatiloak bere larruzko zahatoa betetzen du ur bedeinkatuaz Arrangarte ondoko idoian. Aldareko ermita txikira iritsita, aita-alabak belauniko, amaren arimaren alde otoitz egiten dute Amandre Mari eta arbaso jentilak bizirik daudelarik arrisku eta ekaitzetatik babestu eta hiltzean haien arimak zaintzen dituzten. Esne ontzia aldare gainean utzi eskaintza bezala eta tximiniara hurbiltzen dira

txilarra eta mandragora erretzera amaren omenez. Geroxeago, belarren errautsak hartu eta tontorrera igotzen dira, begirada Baiza eta Beriain erraldoien artean galtzen duten bitartean. Ondoren, txilarraren, artemisaren eta mandragoraren errautsak zabaltzen dituzte Ergoienako zeruan.

Aitak, orduan, maitasunez hitz egiten dio alabari, eta malkoak xukatzeke esan ere bai; ama jainkosa bilakatu da eta zaindari bat gehiago dute orain etxean. Ollideko bost gailurren arkupeetik ikusten den sakanaren edertasunaz gozatuz, handik hegan ibiliko da ama hodei baten gainean. Eta berak gure agureak hainbeste beldurtzen zituen Kixmiren etorrera gure goi lurretaraino heltzea eragotziko du.

Halako batean, Tximua lezetik edo, garraxiak aditzen dira. Harriturik jaisten dira biak hotsa datorren lekurantz, eta hara non ikusten dituzten gizon batzuk zilar koloreko armaduraz eta kaskoz jantzita, eta zartailuak eta ezpatak astinduz esklabo gizako batzuk, Zumbeltzetik Zalbidera, atsedenek gabe, lurrean harlauzak jartzera behartzen dituztela. Ai, ama! -esaten du neskatilak- Kixmirengandik gorde gaitzazu!



Asisko Urmeneta marrazkilaria eta Helena Xurio Arburua idazlea Zugarramurdin. UTZITAKOIA

Historiaren eta mitologiaren artean

'Sugarren mende' liburuan oinarritutako 'Sugarren mende. Sorgin ehiza Euskal Herrian' hitzaldia eman du Asisko Urmenetak Irurtzunen. Fenomenoaren Euskal Herriko ikuspegitik ikerketa falta dela aipatu du marrazkilariak eta dibulgatzaileak

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Hitzaldi desberdinak edo bereziak egiten ditu Asisko Urmenetak. Komiki bereziak egiten dituen bezala. Solasaldi askotan egona denez, euskarri bisuala ezinbestekoa dela uste du marrazkilariak, alde batetik, entzuleek arreta mantentzea eta, bestetik, "garunera" hobeto iristen delako informazioa, baita geratu ere. *Sugarren mende*. Sorgin ehiza Euskal Herrian hitzaldian pizarra batean hitzez azaltzen duena marrazten du. Eta asko dauka azaltzeko.

Sugarren mende Urmenetak kaleratu duen dibulgazio komiki berria da. Askotan landu den Euskal Herriko sorgin ehizaren inguruan hitz egiten du liburuak: "Atera behar nuenean, lagun batek galdetu zidan ea sorgin ehizaren inguruan ez dagoen dena kontatua". Zoritxarrez, ez, erantzun du Urmenetak.

Kontakizuna

Orain arte egin diren kontakizunak kanpotik datoz: "Hasteko, monografia serio bat falta da. Ez dut gutxiestu nahi komiki generoa, nirea dibulgaziozko komikia baita, baina euskarazko sorgin ehizari buruzko liburu bat falta da. Fenomeno bat Euskal Herria bortizki kolpatu zuena, eta ez dugu monografiarik euskaraz". Aldiz, espainolez, frantsesez, alemanez, nederlandez eta edozein hizkuntzatan badira azaldu du artistak. Euskaraz izan ezik.

Euskaldunen kontakizun falta "lehenengo sintoma oso arraroa" dela aipatu du Urmenetak. "Nik egin izan dudana euskaldun gisa

"NAFARROAN EGITEN DIREN GAUZAK, HISTORIOGRAFIA ESPAINOLAREN ARABERAKOAK DIRA"

lehendabiziko aldiz zer izan zen edo izan zitekeen gertatutakoa". Sorgin ehiza gaira heldu da intereseko gaia delako, bereziki kolpatuak izan ziren eskualdetan: "Zugarramurdin herritar batzuk eskatu zidaten noizbait gurea kontatzea, ez inksidoreek kontatu dutena".

Historiografia

Orain arte gaiari buruzko kontaketak, hain zuzen, Espainiako inksidoreek idatzitakoaren arabera izan baitira. "Azken urteetan berreraikitzen ari da mitologia berri bat sozialki, politikoki eta ikuspegi feministatik oso interesgarria dena, baina mitologia berri bat eraikitzen ari gara". Gauza bat mitologia da, eta beste gauza bat da historia, Urmenetaren hitzetan. "Dokumentazioa arakatu nuen eta ikuspegi berria eman dugu sorgin ehizaz".

Gauza bat da Espainiako eta Frantziako bibliografiak nola

kontatu duten eta beste bat Euskal Herrian falta den "narrati-ba nazionala".

"Nafarroan egiten diren gauzak, adibidez, *Maleficium. Navarra y la caza de brujas (siglos XIV-XVII)* erakusketa handi hori hiper garestia izan zena, historiografia espainolaren barruan Nafarroan zer gertatu zen aipatzen zen, Lapurdin edo Gipuzkoan ematen zen fenomeno zela kontuan hartu gabe". Urmenetak Munduko unibertsitatera jo du gaia nola tratatzen den ezagutzeko. "Kasu honetan ez Euskal Herrikoa, momentu batean Espainiako inperioak hogeita bat inkisizio tribunal izan zituen: Sizilian hasi eta Filipinan bukatu, Ameriketako kolonia guzti-tatik pasa".

Audientzia Nazionala

Inksizio instituzio gisa desagertu bazen ere, "Espainiako koroapean gaude guztiok eta bete behar ditugu arau eta lege batzuk, iritzi delitua tifikitatu dagoela eta disidentzia politikoa zigortzen duela oraindik ere". Unibertsitate horietara jo du kolonia izandako herri horiek gaur egun "herri normalak" direlako, errepublikanoak eta askatasunetik ikertu ahal izan dutelako iragana eta inkisizio. Mexikoko Unibertsitateko Natalia Silva Prada ikerlari "oso interesgarriak", esaterako, inkisizioaren izaera politikoa eta poliziako iker-tu du. "Hori esatetik oso urrun gaude hemen. Jarraitzen dugu kontatu duten lau adabaki horiekin. Estereotipo batzuk armatu ditugu, kontatu dizkigutenak, eta jarraitzen dugu pentsatzen apaiz fanatiko batzuek belargile eta emagin batzuk zigortu zituztela". Urmenetak ondorioztatu duenez, ez da horrela "inondik ere".

Inksizioa kolonizatzaileek ezarri zuten. Hortaz, ezin da ulertu Euskal Herriko sorgin ehiza konkista logikatik kanpo. "Inperioaren erdigunetik iristen zaizkigun tesiak bi edo hiru aldiz irakurri behar dira". Gaur egungaiaren inguruan egiten ari diren analisi feministak "oso interesgarriak" direla esan du Urmenetak, baina interpretazio horiek Ameriketatik iritsi direla aipatu du. "Oso interesgarriak dira, baina interesgarriak dira haien esparruetan. Ingalaterra Berrian kolonoen artean ematen den jazarpena eta masakrea izaten ahal da feminizidio edo sozio-ekonomikoki protokapitalismoa. Baina kontuan izan behar

da kolono txuri puritanoak direla, arraza eta hizkuntza bereko kontu itsusi eta triskantza bat". Ezin da Euskal Herriko sorgin ehiza-rekin konparatu.

Sorginak?

"Hemen izan zen konkista militarra eta gero garbiketa. Legez ezin zutena egin asmatu zuten garaiko Audientzia Nazional bat, salbuespenekoa; orain terrorismoa dena, garai batean sorginkeria zen. Jendea torturapean ere hil zuten, sorginak ez zirela eta sorgina izatea zer zen ez zekitelako esan arren". Beste askok sorgin izatea onartu zuten torturaren bidez.

Inksizioa, beraz, herrietako lidergo politikoak eta komunitetako batzarrak kentzeko tresna izan zen. Filipinetako Unibertsitate bateko ikerketa baten adierazpenak eman ditu Urmenetak: "Gutxi gorabehera esaten du kolonizatzaileek lehenik indar militarra eta buruzagiak garbitzen zituztela. Herri menderatu batean botere absolutistek egiten duten lehendabiziko gauza lidergo politiko sozial eta ekonomikoak erditik kentzea da". Horretarako delitu "oso larriak" asmatu zituzten, "nonbait Jaungoikoari berari traizioa egiten zen, eta deabruarekin ituna egiten zela". XVI. Eta XVII. mendeetan "oso gauza modernoak" eraikitzen ari zen.

Euskal Herrian hori gertatu zen lege batek, Foruak, komunitateak, herri lurra eta abarrak babesten zituztelako. "Fernando Aragoiok ezin zuen ezarri inkisiziorik Nafarroan konkistarik gabe. Behin konkistatuta hurrengo urtean ezarri zuen eta lehendabiziko agiriaren arabera inkisizioaren eginkizuna Joan Labrit eta Katalina I.aren alde eta espainolen kontra zeuden jendearen inguruan informazio biltzea eta zigortzea izan zen". Espainiako Inkisizioak sistema politikoa eta erlijiosoa ezarri zuen, baita patriarkalismoa ere. Herri baten kontrako jazarpena egin zen.

Eta nortzuk ziren sorgintzat hartutako emakumezko horiek? Estetikoki Urmenetak ukatu ditu sorginak "kontatzen diguten bezala" irudikatzea, baita "sinpatiko errebelde" azken urtetako mitologiaren araberrak irudikapena egitea ere. "Kendu behar ditugu burutik emakume zahar, hezurtsu, belargile eta abarreko estereotipo horiek". Prozesatuak herrietako jende errespetatuenak eta aberatsenak izan ziren.

"Ez dugu errotzea nahi, kontrolatzen saiatzen gara"

Raul Angulo eta Jose Luis Cuevas Anekhi erlezaintzan ari diren irurtzundarrak dira. Haiek ezta egiteaz aparte, urteko denboraldi honetan Asiako erlaminak harrapatzeaz ere arduratzen dira

Leyre Mateos Galartza IRURTZUN

1 Lehenik eta behin, Asiatic datorren erlamin horri buruz hitz egiteko, zeintzuk dira horren arriskuak?

Arriskurik handiena da gure erleak erasotzen eta ahultzen dituztela. Erlauntza ahuletara joaten dira han erleak erasotu eta beraien larbak elikatzeke erabiltzen dituzte bertako erleak. Asiako erlaminek hori bakarrik egiten dute, gure ekosistemarako ez daukate onurarik. Gure erleek, berriz, polinizatu egiten dute. Honek ez die erlezainei bakarrik kalte egiten, nekazariei ere bai. Asiako erlaminek gozokiak behar dituzte eta urteko garaia araberaren sagardoa egiteko erabiltzen dituzten sagarretara doaz, adibidez, edo irailean mahatsetara.

2 Zein da aurre egiteko garairik aproposena?

Martxoan hasten gara, udaberrian, eguraldia ikusita hori bai. Zaila da, irailetik lastailera erregina ernalduak habietatik ateratzen dira negua lur azpian pasa eta gero. Erregina hauetako bakoitzak habia berri bat egiten du, eta, horregatik, garrantzitsua da orain aurre egitea, habia handiak egin ez ditzaten.



Raul Angulo eta Jose Luis Cuevas erlezainak. LEYRE

3 Nola egiten diozue aurre?

Tranpak jartzen ditugu. Ultzama-Arakilgo baso zaindarekin hitzaldi bat eman genuen, agertzen jende guztiari tranpak nola egin erakusteko. Horretarako, plastikozko botilak erabiltzen ditugu. Garrantzitsua orain jartzea

da, tranpan erortzen den bakarra Asiako erlaminak izateko, hau orain ateratzen hasten denez bakarrik espezie hau erortzen da.

4 Nolakoak dira haren habiak?

Lehenengo habiak txikiak dira, orain sortzen dituztenak, teniseko

pilota baten modukoak dira. Tei-latu hegalean azpian, egurra gordetzen den txaboletan, ardiaren ontzietan egoten dira gehienetan. Ezin da busti, beraz, babestutako tokiak behar ditu. Baina, aldi berean, hezetasuna behar dutenez erreka inguruetan ere ager daitezke. Gero larbak aterata, habia handiagoak egiten dituzte, horiek makaletan egoten dira, altuera handian.

5 Eraginkorrak dira jartzen diren tranpak?

Oso eraginkorrak dira bakarrik erlamin horiek erortzen direlako. Pinpilinpauxarik ez da sartzen, noizbehinka euliren bat agertzen da, baino ezer gehiago ez. Oso erakargarria da Asiako erlaminendako, sartzen dira eta oso hegal handiak dituztenez, ezin dira atera, gora eta gora hegan egiten saiatzen dira baina ezin dira atera.

6 Zer amu jartzen duzue tranpan?

Sangria jarri dugu, garagardo beltza ahabeekin, beste batzuek patxarana jartzen dute, beste batzuek anisa, eta abar. Bakoitzak bere ohiturak dauzka. Nik hemen honekin erortzen direla ikusten badut hau jarriko dut. Denboraldi honetan gozoa behar duenez oso erraza da sartzea eta tranpan erortzea.

7 Hobekuntza nabaritzen da?

Hobetu ez dakit, saiatzen gara egoerak okerrera ez egiten, gehiago zabaldu ez daitezke. Ez dugu Asiako erlaminak errotzea nahi. Ezinezkoa zaigunez haiek guztiz desagertaraztea, orduan kontrolatzen saiatzen gara. Horrela, ahalik eta minik gutxien egiteko.

8 Eta bigarren mailako habiekin zer egin daiteke?

Bigarren mailako habiaren bat kendu dugu. Pertsonendako ez da arriskutsua, altura handietan dago eta kentzeko garabia batekin igo behar izan dugu. Garrantzitsua lehen mailako habiak kentzea da, bigarrenak egin ez ditzaten.

9 Zuendako zer garrantzi daukate erleek?

Izugarrria! Erlezain hasi ginenean oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun erleak ingurumenean daukan garrantzia, eta oraindik ere iruditzen zaigu. Gainera, ikusten genuen ere, oso animala zigortua dela, jende askori beldurra ematen diolako. Erleek ez dizute eraso egingo, haien etxean sartzen ez bazara. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu, beti ingurumenaz hitz egiten gabiltza eta gero gauza hauei ez zaie ematen daukaten balioa. Oso baliagarriak dira polinizatzaile bikainak direlako eta haiek bezalakorik ez dagoelako.

10 Zer gertatu da azken urteetan Asiako erlamin hauekin?

Galera handiak eragin dizkigu erlezaintzan gabiltzanoi. Gure kostuak gorakada jasan du, eta ezin dugu ezta behar den prezioan saldu. Gainera, Txinatik ekartzen duten "eztia", oso merkea da. Eta hemengo erlezainak ezin gara lehiatu.

11 Noiztik dabilta hemen?

80ko hamarkadan ailegatu ziren eta pixkanaka garrantzia handia hartzen joan dira. Galizian eta Asturiasen asko daude, hezetasun handia daukatelako. Hemen, Erriberan, gutxi batzuk daude ez dutelako behar duten klima hezea.



**ZURE NEGOZIO,
PRODUKTU EDO
EKITALDIAREN
BERRI EMAN NAHI DUZU**

Kuñak, elkarrizketak, audioak, irratsaioak,
web banerrak, prentsarako euskarriak...
prestatuko dizkizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA**

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu